

Arrasate

P R E S S

1999ko
azaroak 12
471. zenb.



Arantzazu
nora zoaz?

IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN • KULTURA ELKARRIZKETA: KAITIN ALLENDE
EUREN IKUSPUNTUTIK: IÑAKI MENDIGUREN • KIROL GAIA: TRIAL TXAPELKETA



**ESKAINITZA
BEREZIAK**

**Sofa
leku**

**HIRU JOKO
LARRUA
OIHALA
3+2**



**Amuebladora
Mondragonesa**



Zorioneko bailara

Bukatzen dagoen aste honetan, Chiapas-eko zonaldean zapatistek eta indigenek bizi duten borrokaren informazio eta sostengurako hainbat ekitaldi egin berri dira. Lanean jende gutxi ibili bada ere, ilusio eta indar handiarekin ekin diote antolatzaileek egin beharrekoari.



Iker Barandiaran

Beste alde batetik, dagoeneko Hies Ekimena taldekoak ere hasi dira urteroko abendu aldeko jardunaldien gainean gogoeta egiten. Oso jende gutxi, hain gertu daukagun eta ikusi nahi ez dugun birus kupidagabe hori saihesteko asmotan etengabe informazio eta prebentzio lanean diharduena.

Ziurrenik ez da inor harrutuko, bi arlo horien atzean jende kopuru oso txikia dagoela jakinez gero; lau katu, hain zuzen ere.

"Kooperatibek inolako kritikarik gabeko dinamika konformistan barneratu dute bailara"

Eredu gisa hauetxek bururatu bazaizkit ere, era beretsuan daude Arrasateko eta bailara guztiko herri mugimendu gehienak, baita agian egonkorragoaren itxura ematen duten horiek ere. Galdeiezue bestela. Hala ere, horrek ez du esan nahi jarraituko ez dutenik, edo dabiltzanak guztiz erreta daudenik; bai, ordea, ardura eta lan gehiena banaka

batzuek bakarrik daramatela. Baina salbuespen edo adibide esanguratsuak ere badaude, egon. Horra hor Arrasateko Antimilitaristen kasua. Biltzeko lekua eta dirua eduki arren, taldea desegin egin zuten, ildo honetako lana zeharo aldatu bazen ere, herriko intsumitu kopuru handia ez zelako batere inplikatu. Paradoxikoa gutxienez, beste herri batzuetan antzeko taldeek bizirauteko duten egoera eskasarekin alderatuz gero.

Egia esan, ez nau larregi harritzen. Urteak direla, herrian hainbat elkartek sortzeko unea, bultzatzaile eta eredugarri izan zirela esan ohi den arren, gaur egun jendeak duen jarreraren erru zati handi bat kooperatiba santuek dute. Inolako balorerik transmititu ez eta bailarari izugarritzko konfort eta egonkortasun ekonomikoa ekarri diote. Zalantzarik gabe, Arrasate ingurua ekonomikoki zeharo aberastu dute eta oso jende gutxi izango da gose gure artean, baina inolako kritikarik gabeko dinamika konformistan barneratu dute bailara. Eta ez zait axola ingurune abertzalea dela esatea, dagoena eguneroko bizitzan ikusten dena baita.

Jendeak bizitza maila altua duen neurrian eta bere beharrak aseta dauzkanez gero, beste arlo batzuetan inplikatu beharrean, paso egiten du militantzia edo elkarreetako lanetatik.

Honen gainean hausnarketa sakona egitea ez legoke batere gaizki. Hori baino gehiago, beharrezko deritzot. Herria, beste gauza askok "aberasten" baitute. ■

"Tabernan izan genuen lehen Maritxu Kajoi egunean 12 botilako 27 kaxa txanpain saldu genituen; aurtan, bost baino ez"

Antonio Murillo

58

erretiratu omendu zituen Fagorrek

Joan den astean Fagor kooperatibak bazkari eder bat eskaini zien iaz eta aurtan erretiratutako lan-bazkideei. Senar-emazteekin batera, 109 lagun elkartu ziren Zelai Zabala jatetxean. Harrigarria bada ere, omendutakoen artean inor ez zen iristen 65 urtera.

ITURRI ONETIK

Debarroko euskara

Koldo Zuazo irakasle eibartarrak *Debarroko Euskaria* izeneko lana idatzi berri du. Debarroko euskararen azterketa egiten duenez, badirudi bailarako udal gehienek lagun-duko dutela liburuaren argitaratzen. Dena ondo bada, bada, prest egon liteke Durangoko Azokarako.

Koldo Zuazok 43 urte ditu eta EHUKO Filologia Sailean ematen ditu eskolak. Dagoeneko bi liburu argitaratu ditu: *Euskararen Batasuna* (1988) eta *Arabarrak Euskararen Herrian* (1999). Hirugarren bat ere egina du —*Arabako Euskararen Lekukoak* (1998)—, Endrike Knörr euskaltzainarekin batera.

Debarroko Euskaria liburuak osatu egingo du gai horren inguruan sortu den bibliografia.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Anartzabal. **Kazetariak:** Manjé Degradías, Ubane Madera, Maider Ose. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantza Arroisabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Administrazioa:** Maite Urricabeitia (Tel.: 943 71 23 90). **Disenatzailea:** Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemaileak:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Kamele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Frankeo kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esaneta eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuaren egiten da.

Azala: Ubane Madera.



Arrasateko Udalerri argintza



Gipuzkoako Foru Aldundien argintza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailearen argintza

EKIN ELKARTEAREN AZALPENA

Ekin izeneko talde baten kartelak azaldu dira joan den astean.

Horren aurrean, azaldu nahi dugu Ekin Emakumeak-AED Elkarte lanean ari garela aspalditik eta talde berri honekin ez dugula inolako loturarik.

Izan ere, 1983an sortu zen AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) elkarte, izenak diotena helburu duena. Helburu zabal hori lortu ahal izateko, lan talde ezberdinak sortzen joan zen AED, gerora elkarte izaera hartu dutenak: Komunikabide arloko taldea, ARKO elkarte bihurtu dena. Haurren arloko taldea, gero Txatxilipudi elkarte izatera iritsi dena; langileen arlokoa, Euskalan bilakatu dena; Emakumeen arloko taldea, 1995ean Ekin izenarekin elkarte izaera hartu zuena.

Eta beste lan talde batzuk ere ari dira lanean, gerora bide bera jarraitu dezaketena. Elkarte hauek edozein joera politikotatik kanpo daude eta ez dute irabazi ekonomikoa lortzeko helbururik.

Ekin egiten ari garen lanaren ardatza emakumea eta euskara da: emakumearen garapen osoa lortzea, euskal kultura, giroa eta euskara bide iza-

nik; euskara eta euskal kulturaren normalizazioa lortzea emakumeek eragiten duten esparruetan; eta antzeko helburuak dituzten talde, elkarte eta erakundeekin elkarlanean jardutea.

Helburu hauek lortzeko gurekin dugu 961 bazkidek osatzen duten oinarri soziala, elkartearen gidaritzaren daraman Zuzendaritza Batzordea eta Eragilea.

Gaur egun, bi gunetan ditugu ekintzak: Garagartzabalea eta hirigunean: ikastaroak, solasaldi eta hitzaldiak, irteerak, Santamas eta beste jai batzuetan talogintza...

Ekintza horiek aurrera eramateko, oinarritzak da bazkideen ekarpena eta baita Arrasateko Udalaren, Emakundearen eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere. Aurrerantzean ere, Arrasateko emakumeek euren garapena euskaraz ere lor dezaten lanean jarraitzea da Ekin elkartearen asmoa.

Ekineko zuzendaritza batzordea

OINARRI DEMOKRATIKO- EI BURUZKO BATZARRA

Bizi dugun une politikoak duen garrantziaz jabeturik, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak bere irakurketa politikoa propioa egin du eta egiten ari da.

Euskal Herriko gehiengo sozial eta politikoak onartu du jada benetako irteera demokratikoa emateko oinarri-oinarritzak direla gatazkaren izaera politikoa onartzea, elkarriketa politikoa beharra, parte hartu behar duten subjektuak, bide errepresiboa alde batera uztea eta Euskal Herri-rako pruzesu eratzaila hastea.

Horregatik, Amnistiaren Aldeko Mugimendutik, prozesua politikoa, demokratikoa eta nazionala izan dadin, Euskal Herri-rako oinarri demokratikoak finkatzea eta hauek gizarteratzea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Alde batetik, prozesuak Demokratikoa izan behar badu, nahitaezkoa da Euskal Herri-tik kanpoko inolako eskuhartze politiko eta militar baldintzatzailerik gabeko prozesua ziurtatzea.

Eta bestetik, euskal herri-tarron hitza eta erabakia subiranoa izan dadin, euskal hiritar guztion partehartze zuzena eta askea ahalbidetu behar da.

Hau da, euskaldunon borondatearen aurka hemen diharduten indar armatu oku-

patzaileak kanporatzeaz eta gatazka politikoaren ondorioz kartzelan edo erbesteratuta aurkitzen diren gizon eta emakume guztiak kaleratzeaz, etxeratzeaz ari gara.

Oinarri demokratiko hauen beharrezko inguruan kokatu behar da euskal preso politikoaren taldeak hasi duen gose greba. Plazatu dituzte euren aldarrikapenak:

- Euskal preso politiko guztiak kaleratzea, Euskal Herriaren eraikuntza prozesuan parte hartzeko.

- Euskal preso politiko guztiak Euskal Herri-ratzea.

- Hainbat arrazoiengatik gaixorik diren preso guztiak kaleratzea.

- Baldintzapeko askatasunaren epeetan direnak kaleratzea.

- Entrega eta estradizioak amaitzea eta Euskal Herri-ri libre bizi izateko eskubidea.

Horren guztiaren inguruan hitz egiteko, arazoaren 13an, larunbatez, goizeko 11etan aukera izango dugu arrasate-arrasateko Arrano Elkartearen Bertan, Mitxel Sarasketa preso ohia izango dugu hizlari.

Beraz, gonbitea egiten dizuegu. Gaiak duen garrantziaz jabeturik, ahal den jende gehienak parte hartzea nahi genuke eta.

Amnistiaren Aldeko Batzordea

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 12

- Korkuera, Musakola

Larunbata, 13

- Irizar, Erguin

Igandea, 14

- Amezua, Santa Marina

Astelehena, 15

- Zabala, Zarugalde

Asteartea, 16

- Ruiz, Maala

Asteazkena, 17

- Morales, San Andres

Osteguna, 18

- Azkoaga, Ferrerías

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea
Garagartzabalea
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

Aita Santuak kargua utzi beharko luke?

Aita Santuaren adinak eta osasun egoerak era guztietako iritziak sortarazi dituzte.



Jose Prieto
(40 urte)
Langilea

Nire ustez, bai. Ahalmenak galtzen ditugun adin batera helduz gero, normalena erretiratzea litzateke. Bera ez da besteok baino gehiago.




Pilar Muñoz
(39 urte)
Langilea

Bai, nire ustez, bai. Beste guztiok erretiratzen garen moduan, berak ere gauza bera egin beharko luke.



Jose Luis Galdos
(58 urte)
Langilea

Nik baietz uste dut. Denok daukagu gure denbora mugatuta eta hori modu berean administratu beharko genuke denok.



Manuel Sanchez
(65 urte)
Erretiratu

Beste edozeinen moduan, atsedeen hartzeko aukera izan beharko luke.



Dolores Montoro
(58 urte)
Etxekoandrea

Nire ustez, aurrera egin ahal badu, egin dezala. Beti ere berak nahi izanez gero, noski.



Itziar Garitaonaindia
(24 urte)
Ikaslea

Ez. Agoantatu ahal duen bitartean, aurrera segi dezala.



Nerea Agirre
(20 urte)
Ikaslea

Nik uste dut ezetz. Erretiratu eta kobratzen jarraitzeko... lanean segitu beharko luke.



Santi Becerra
(25 urte)
Langilea

Beste guztiok bezalakoa da eta dagoeneko atsedena merezi du.



Goiko Benta

Ostatua - jatetxea

Otordu
goxo-goxoak
toki
zoragarrian

Arantzazu auzoa 12
Tel.: 943 78 13 05
Oñati



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Tel.: 943 77 09 92 • Faxa: 943 - 79 78 14 • ARRASATE

12 ostirala

■ ZINEA

Cruelles intenciones, Alai zinemana, 19:00etan eta 22:00etan.

■ MUSIKA EMANALDIA

Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Orkestrak eta Abesbatzak kontzertua eskainiko dute Amaia antzokian, 20:30ean. Antolatzailea: Arrasate Musikal.

■ EUSKARAREN AFARIA

Euskal Herrian Euskaraz taldeak afaria antolatu du Jokin Zaitetikiko karpan, 21:30ean.

■ KONTZERTUA
JAM ARETOAN

Atari Teenage Riot eta *Bad F-Line* taldeek kontzertua eskainiko dute Bergarako Jam aretoan. 21:30ean hasiko da. Sarrera 2.300 pta, bertan.

■ KONTZERTUA
GAZTETXEAN

Species Kanariar Uhartetako hip-hop eta hardcore taldeak eta *Eraso* Zarautzeko thrash-metal taldeek kontzertua eskainiko dute gaztetxean, 22:00etan.

■ TRONBOI
KONTZERTUA

Tronboi kontzertua Aterpe kafetegian, 23:00etan.

■ MAGIA EMANALDIA

Zañartu magoak magia saioa egingo du Gambrinus garagardotegian, gaueko 24:00etan. Antolatzailea: Euskocium.

13 larunbata

■ ZINEA

El sueño de una noche de verano, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan, Alai zinemana.

■ BARAZKIZALEEN
SUKALDARITZA

Barazkizaleen sukaldaritza ikastaroa 10:00etan hasiko da, AEDren egoitzan. Antolatzailea: Ekin Emakume Taldea da.

■ AMNISTIA HIZPIDE

Mixel Sarasketa preso ohiak eta Herriko AABetako kide batek "Borrokanda dauden presoen egoera eta Oinarri demokratikoak" izango dituzte hizpide, Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatutako hitzaldian. Saioa 11:00etan, Arrano elkartearen.

■ JAM ARETOA

The Business eta *Disturbio 77* taldeek kontzertua eskainiko dute Bergarako Jam aretoan, 22:00etan. Sarrera 1.500 pta kostako da.

■ ROCK KONTZERTUA

Iskanbila eta *EH Sukarra* taldeek kontzertua eskainiko dute EHEK Jokin Zaitegin jarri duen karpan, 22:30ean. Sarrera Iratin eta Ekaitzen salgai, 600 pta.tan.

14 igandea

■ ZINEA

El sueño de una noche de verano, 17:00etan, 19:30etan, eta 22:00etan, Alai zinemana.

■ TRONBOI
KONTZERTUA

Tronboi kontzertua izango da udaletxeko bilkura aretoan, goizeko 11:00etan.

■ PAILAZOAK
UMEENTZAT

Kiki, Koko, Moko eta *Flax* pailazoak EHEK Jokin Zaitegin jarri duen karpan arituko dira. Emanaldia 17:00etan izango da.

15 astelehena

■ ZINEA

El sueño de una noche de verano, 19:00etan eta 21:30ean, Alai zinemana.

16 asteartea

■ ZINEA

El sueño de una noche de verano, 19:00etan eta 21:30ean, Alai zinemana.

■ IPUIN KONTALARIAK

Udal liburutegiak antolatutako Txatxikontalariak arituko dira ipuin kontari udal liburutegian bertan. Bi saio egingo dira: 17:00etan 3-4 urte artekoentzat eta 18:00etan 5-6 urtekoentzat.

■ GIZA BAZTERKETA

Arrasateko Giza Bazterketaren aurkako plataformaren aurkezpena egingo da Monterronen 19:00etan.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde alizariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6-1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralean
Setatik Betara.

Tel.: 943 79 26 99

Ondoren, 19:30ean, Nekane Jurado ekonomilariak eta Eusko Jaurlaritzako planifikazio teknikariak, "Etxebizitza, behin behinekotasuna eta gazteria Arrasaten: aukerako alternatibak" hitzaldia eskainiko dute.

18

osteguna

■ ZINEA

Cuando vuelvas a mi lado, Alai zineman 19:00etan eta 21:30ean.

■ ZINE EMANALDIA

Estacion Central de Brasil filma eskainiko da Amaia antzokian, 21:30ean. Sarrera 450 pta kostako da (Gazte Txartelarekin, 400 pta).

17

asteazkena

■ HITZALDIA BERGARAN

"Eskola 2000. urteko hezkuntza erronken aurrean" hitzaldia eskainiko du Jaume Funes Bartzelonako unibertsitateko irakasleak Mariaren Lagundiko ikastolan, 19:00etan.

■ ETBk MEZA PARROKIATIK

Azaroaren 13an San Joan Bataiatzailea parrokiak esango den meza grabatu eta azaroaren 14an eskainiko du ETBk. Elizbarrutiaren eguna dela eta, "Ezagutu zure eliza, zure etxea da" lelopean egingo dute meza Gipuzkoako kristau elkarteek.

■ IKASTOLAKO TOPAKETA

Mariaren Lagundiko ikasle ohi, irakasle eta gurasoek topaketa eguna izango dute azaroaren 20an. 11:00etan harrera, 11:30ean eukaristia, 13:00etan diaporama eta bisita ikastolari eta 14:30ean bazkaria. Izen ematea asteazkena arte egongo da zabalik. Txartelak 3.500 pta. Argibideak 943 76 25 40 telefonoan.

■ PSIKOESTIMULAZIOA

ICTE zentroak "psikoes-timulazioa dementzietan" gaia lantzeko ikastaroa antolatu du abenduaren 13tik 17ra bitartean. Interesatuak 943 77 16 99 telefonora dei dezakete

■ ARGAZKI ERAKUSKETA

"Irakurtzeko plazerra" argazki erakusketa dago ikusgai Monterronen. Azaroaren 26a arte egongo da irekita. Ordutegia: 18:00-20:00 astegunetan eta 12:00-14:00 eta 18:00-20:00 jaiegunetan.

■ KIROL POLITIKA

Deba Garaiko mankomunitateko kirol zerbitzuak Kirol politikari buruzko topaketa antolatu du azaroaren 26rako, Arrasaten. Izen ematea zabalik dago. Horretarako Euskadiko Kutxara jo dezakezue. Matrikula, 5.000 pta.

■ MARGO ERAKUSKETA

Valentin Aranak bere lanak jarri ditu ikusgai Harresi aretoan. Erakusketa azaroaren 28a arte egongo da irekita. Ordutegia: 18:00-20:00, lanegunetan eta 12:00-14:00 eta 18:00-20:00, jaiegunetan.

■ MARGO ERAKUSKETA

Elena Arroyo santurtziarrek bere lanak ditu ikusgai Toki Eder kafetegian.

Jostunen afaria

A b e n d u a k 1 1 , z a p a t u a

KATAIDE
J A T E T X E A

MENU BEREZIA:

- Urdaiazpikoa, pateak, frijituen aukera, kanapeak.
- Lengoradu-erroilutxoak ganbekin, txakolin erara.
- Limoi sorbetea txanpainarekin.
- Solomilloa piperbeltz-saltsarekin edo entrekota roquefort-saltsarekin.
- Tarta desberdinak dastatzeko.

Prezioa: 5.500 pta.

KATAIDE JATETXEA • Kataide industrialdea • Tel.: 943 79 60 10 / 77 10 80

Dantza eta ikuskizuna

ondoren...



USTEAK USTE

Langile amorratua

On Joxe Migel Barandiarani behin galdetu omen zioten zein ikasle gogoratzen zituen bereziki Gasteizko apaizgaitegian irakasle izan zen garaitik.

Hiru izen esan omen zituen. Bat Jose Maria Arizmendiarrirarena. "Langile amorratua". Horrela definitu zuen Barinagako abadegaia. Beraz, gaztetan ere bazen nor.

Adin batetik gorakoen artean bizirik dirau Arrasaten On Jose Mariaren oroitzapenak. Gazteen artean, beriz, oso gutxik ezagutzen dutela esango nuke. Eta hemendik ateraz gero, zer esanik ez.

Bitxia da On Jose Mariarekin gertatzen dena. Bere herrian geroz eta jende gutxiagok ezagutzen duen bitartean, inguru ikasietan eta, geroz eta jakinmin handiagoa pizten du.

Langile amorratu bezain eragile aparta izan genuen On Jose Maria. Gizartean, ekonomian eta politikan ere modu berezian eragin zuen eta mende bukaerako Arrasate birdefinitu egin zuen.

Nola definituko zenukete bi hitzetan?

Joxe Aranzabal



Semea semearen gain...

* Iñaki Mendiguren

...
edo "korta behiez gainezka eta artaldea ere sartu nahi". Bi esaera hauek ditugu euskaraz gaztelaniazko "éramos pocos y parió la abuela" delakoaren parekoak. Duela gutxi aurkeztu zuen UZEIk sinonimoen hiztegia; egun batzuk geroago Elhuyarrek "Sinonimoen Kutxa", eta, bi gutxi bailiran, Bostak Bat taldeak ere berea atera du Adorez sailean. Garbi utzita mundu guztiak duela, puntu honetan behintzat, nahi duena egiteko eskubidea, egoera hau zentzugabe samarra ote den iruditzen zait.

Gainera, ez da lehen aldia. Burura etortzen zaizkidan batzuk aipatzearen, Kintanaren eta bere taldearen Euskal Hiztegi Modernoa agertu zenean, inguruan zen Luis Mari Mujikarena; Elizen Arteko Bibliakoak Itun Berria ateratzera zihoazenean, gotzainek beren Itun Berria atera zuten; entziklopedien arloan ere bateratsu ibili ziren Lur eta Elhuyar, eta zelako gerra

piztu zen!; gero Elhuyar hiztegia eta Hiztegia 3000 ere oso parean etorri zitzaizkigun. Eta orain, ez sinonimo-hiztegi bat, hiru baizik!

Gure gaixotasun hau badi-rudi ez dela liburugintzara mugatzen. Euskara ikasi eta irakasteko zentroen arteko lehiak "AEK/HABE" ere izan zituen ordu ilunak; maila orokorragoan, hezkuntza-mundua ere bai "ikastolak/eskola publikoak"; eta zer esanik ez alderdi politikoei dagokienez.

Norbaitek pentsatuko du aukera desberdinak izatea ona dela, merkatuaren normalizazioa adierazten duela

“
Hain gaitza ote da indarrak batzea, norberak bere teman aurrera egin gabe?
”

lehia honek, edo aukera bakoitzak izango duela abantailaren bat besteez ez dutena...

Baina, ez al dago beste lehentasunik hemen? Gure hizkuntza eta kultur merkatua txikiegia da horrela ibiltzeko. Errepikatu diren lan horiek, beren artean aldeak eta ñabardurak izan arren, funtsean aski berdintsuak eta parekoak dira, eta, beraz, itzal egingo diote elkarri.

Zer gertatzen zaigu hain koordinazio urria izateko? Merkataritza-interesak, protagonismo-nahia...? Ez da erraz ulertzen, euskalgintzaren munduan lau katu izanik, elkarren berri estuagoa ez izatea. Hain gaitza ote da indarrak batzea, norberak bere teman aurrera egin gabe? Hain nekeza ote gure premia eta beharren plangintza orokorra egin eta lana banatzea? Agian, honetarako aginpidea duen erakundea falta zaigu. Beharbada, erakunde larregi dugula pentsatuko du besteak, eta hobe dela merkatuari bere bidea egiten uztea...

Baina merkatuak etsipena eta porrota eta indarra alferrik galtzea ere ekarri ohi du, eta ez dakit, bada, hori onartzeko egoeran ote gauden.

* Itzultzailea



ARRASATE HOTELA

Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiraletan Setatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

BERGARA


① Mariaren Lagundia liburuan

Mariaren Lagundia ikastolaren berrehun urteak jasotzen duen liburua Bergarako udaletxean aurkeztu zen asteazkenean. "Mariaren Lagundia: Bi Mendetako Historia" izenburua du liburua eta Lagundiako Manoli Urrea Olazabal historialariak idatzi du.

Lagundiak berrehun urte hauetan Bergaran egin duen lanaren berri jasotzen du, euskaraz eta gaztelaniaz.

Aurkezpen ekitaldian Jose Maria Setien Gipuzkoako goitzaina izan zen, udaletxeko eta lagundiko ordezkariak gain.

Urteurreneko ospakizun berruan, ostegunean hitzaldia eman zen ikastolan bertan. XIX. mendean Bergaran zegoen irakaskuntza izan zen hizpide.



ANTZUOLA

② Goizper inauguraziotan

Goizper Kooperatiba zorio-neko dabil azkenaldian. Bate-tik, enpresa sortu zela 40. urteurrena ospatuko da. Bette-tik, egin berri diren instalazioak inauguratuko dituzte. Hori guztia ospatzeko, azaroaren 19an ekitaldi berezia izango da Goizperren.

Hasteko, bisita gidatua egingo da, Goizperreko eta Olaker-eko instalazioetan. Ondoren, eguerdi partean, instalazio berrien inaugurazio ekitaldia egingo da.

Goizperreko sortzaileei ere omenaldia egingo zaie, lehen aipatu moduan, 40 urte bete dituelako lantegiak.

Ospakizun ekitaldiekin bukatzeko, luntxa, herri-kirol erakustaldia eta musika emanaldia izango dira.




Zure bizitzako une berezietarako

Bataioak
Jaunartzeak
Ezkontzak
Otorduak

Arantzazuko bihotzean

OSTATYA - HOSPEDERIA

Arantzazu. 20567 OÑATI • Tel.: 943 78 13 13 - 943 78 13 14



Arrasate

LANAK

OTALORAN

Pilotalekua egiteko lanak.

SANTA TERESAN

Santa Teresa eta Hondarribia kaleen arteko saneamendu lanak.

ZALDISPEN


Oinezkoen pasabideko lanak.

OBENERREKAN

Gernika kaleko oinezkoen pasabidea berritzeko lanak.

MARKULETEN

Urbanizazio lanak.



Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro


Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua




OSTIRALA 12

Erabat lainotua izango da astebukaeraren atariko. Eta baita hotza ere. Izan ere, 800 m. tan elurra egin lezake-eta.



LARUNBATA 13

Lainoak izango dira nagusi eta euria egingo du. Tarteka zaparradak ere izango ditugu. Haizeak Iparraldetik joko du.



IGANDEA 14

Euri gutxiago egingo du. Tenperatura ez da aldatuko eta haizeak Iparraldetik joko du, ahul.

Ilargia



Ilgora

Hilaren 16an, asteartean, ilgora izango dugu.

Mezak

Parrokia

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (erdaraz)
19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres

Ostiralean
18:30 (Otoitz ordua)

Larunbatean
18:30 (Bezpera abestiak)
19:00 (elebiduna)

Igandean
10:00 (erdaraz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)


Santa Teresa

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean
10:30 (erdaraz)
11:30 eta San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%59,6



Urteurrena

Orain dela urtebete *Arrasate Pressen*:

- Jabier Retegi, MCCra itzuli zen.
- Santi Zeziaga hil zen azaroaren 8an Errealaren eta Athleticen arteko derbia ikusten zegoela, Anoetan.
- Arrasateko Erraldoien eta Kilikien jaia ospatu zen, azaroaren 14an.

astea bi hitzetan

■ **Udalean 35 ordu lanean**
Arrasateko Udaleko langileek asteen 35 ordu beteko dituzte, osoko bilkurak hala onartzen badu. Era berean, oraingo 28 langile finko funtzionario izango dituzte. Hori guztia Pertsonal Batzordeak astelehenean egin zuen bileran onartu zen.

Pertsonal Batzordeak bi proposamen hauek egin dizkio udaleko Gobernu Batzordeari. Beraz, orain Gobernu Batzordeak bere onespena ematea falta da eta ondoren osoko bilkurak erabakia berrestea. Hilaren bukaeran jakingo dugu, beraz, emaitza.

Inguruotako udaletxeen artean Arrasatekoa izan da neurri hau proposatu duen lehena.

Dena dela, datorren urte hasieran 32 orduko lanastea

ezartzea eztabaidatzea espero da. Izan ere, erakunde publikoek pribatuek baino lanordu gutxiago dituzte.

■ **Euskararen Tunela**

Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolatuta, Euskararen Tunela izeneko erakusketak atek ireki zituen astelehenean. Azaroaren 12a arte goizez zein arratsalde euskararen inguruko hainbat bitxikeria izango da ikusgai Jokin Zaitegi plazan.

Erakusketaren helburua euskararen aldeko sentsibilizazioa lantzea da, batetik. Eta baita euskararen bilakera zabaltzea eta euskal herritarrei kultura arloko hainbat ekimen eskaintzea ere.

■ **Bigarren eskuko autoak**
Asteburuan bigarren eskuko

autoen erakusketa egin da Mondragoen. Deba Garaiko 9 banatzailek antolatuta, bigarren eskuko autoak fidagarriak direla erakustea izan da asmoa. 120 auto ikus zitezkeen Arruenako parkean larunbatean eta igandean. Bitxikeria moduan, esan dezagun larunbatean 10 automobil saldu zirela.

■ **Inaugurazioak**

Mondragoeko Lantegi Eskolak berriztutako bi dorre inauguratu ziren asteartean. Bateetik, Aretxabaletako Galartza dorrea eta bestetik, Oñatiko Bidaurreta edo Olakua dorrea.

Inaugurazio ekitaldian Oñatiko eta Aretxabaletako alkatez gain, Mankomunitateko eta INEMeko ordezkariak izan ziren.

■ **ELAn haize berriak**

ELA sindikatuak arduradun berria du Deba Bailaran. Leire Txakartegi Iramategi du izena, 26 urte ditu eta ondarrutarra da.

Luis Migel Sanz "Huiti" ordezkatu du. "Huitik" hemendik aurrera metal sektoreko kontuak eramango ditu eta eskualderako arduraduna Leire Txakartegi izango da. Izan ere, ELA sindikatuaren nazio-batzordeak aldatzeko garaia dela erabaki zuen bere azken batzarrean; gazteen txanda zela. Eta sei gazte-bost neska eta mutil bat sartu zituen bere batzordean; horietako bat da Leire.



“ Ez daukat EGarik, ez dut oso ondo hitz egiten, baina, azterketa gaintzeko, euskaltegi batean hasi nintzen. (...) Ez naiz gauza esan nahi dudana euskaraz esateko. Lau hitz egiten ditut ondo gelditzeko, eta hori da guztia”.

JORGE FERNANDEZ
Mister Euskadi
HABE aldizkaria
1999ko urria

UGARTE

Industria
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00
Faxa: 943-793412

**PUB
HAIZEA**



URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tel.: 943 79 87 74
ARRASATE

Familia Heziketa zentroa kolokan

Familia eta Gizarte Heziketarako Zentroan (FGHZ) ez dira ikastarorik ematen ari ikasturte honetan. Arazoa ez da Arrasatera mugatzen. Kutxa Fundazioak Gipuzkoan dituen beste bost zentroetan ere arazo bera dute. Kontua da Gizarte Segurantzak ez duela dirurik jaso FGHZetan lanean ibili diren 134 begiraleengatik. Diru kopuru potoloak dira. Izan ere, langile bakoitzeko 32.075 pta.ko 60 kuota izango lirake. Hori eta begirale bakoitzeko 50.000 pta.ko isuna.

Nork ordainduko dio hori Gizarte Segurantzari? Kutxa Fundazioak esaten du begiraleei dagokiela ordaintzea, langile autonomoak direlako. Begiraleek, oster, soldatapeko langileak direla diote; beraz, Kutxa Fundazioak ordaindu behar duela.

Kontuak kontu, abendua-



Arrasateko zentroko hamabi begirale kalean gelditu dira.

ren 13an Donostiako Bigarren Auzitegiak argituko du auzia. Ordura arte, FGHZn ez da ikastarorik emango.

Bien bitartean, Arrasaten lanik barik geratu diren 12 begiraleek eskutitz bat bidali diote Arrasateko alkateari, hainbat eskari eginez: "fundazioaren jarrerari uko

egitea, ikastaroak has daitezela eskatzea eta Kutxako lehendakariari azalpenak eskatzea". Hainbat ikasle, bestalde, begiraleen aldeko sinadurak biltzen hasi dira. Kutxa Fundazioko arduradunek ez dute adierazpenik egin nahi izan, harik eta epaileak epaia jakitera ematen duen arte.

Aita Menniko langileak haserre

Aita Menni ospitaleko langileak haserre daude eta mobilizazioei ekin diete. Joan den astean prentsa ohar bat kaleratu zuten, enpresaren jarrera salatzeke. Apirilean hasi ziren lehen elkarrizketak lan hitzarmena adosteko. Uztailean, enpresak %1,8ko igoera proposatu ei zien soldatetan, eta urteko lanorduetatik 7 ordu kentzea. Urtean 1.730 lanordu egiten dituzte.

Uztailetik ez omen da elkarrizketarik izan. Joan den asteazkenean batzarra egin zen eta mobilizazioei ekitea erabaki zuten, eritxeko zuzendaritza elkarrizketak egitera jar dadin. Asteazkenean bertan, ostegunean eta ostiralean, ordu erdiko kale agerraldiak egiteko ziren, eritxearen aurrean.

MUK Telekomunikazio Master bat sortu du

Mondragon Unibertsitateak telekomunikazioen aldeko apustua egin du. Ikasturte honetan master berri bat sortu du, telematika gai nagusi duena.

Dagoeneko 15 ikasleko talde bat hasi da mastera lantzen. Sei hilabete zehar, 20 bat irakasle izango dituzte ikastaroaren arlo teorikoak eta praktikoak lantzeko.

Master honek helburu praktikoak ditu oso: ikasleen ikasketak inguruetako enpre-

sen beharretara egoki daitezela. Horixe da kontua.

Martxora bitartean eskolak goizez emango dira. Tarte horretan, komunikazioen ikuspegi oso bat emango zaie: enpresen barne komunikazioa eta enpresen arteko komunikazioa landuko dute. Instalazioak nola egin, administrazioarentzako soluzioak, komunikazioen analisisa eta diseinua, baliabideei nola etekinik onena atera eta edukien garapena

zelan landu, besteak beste.

Ikastaroa amaitzen dutenean, proiektu bat landu beharko dute enpresa batean, ikasitakoarekin zerikusirik izan beharko duena.

El Corte Ingles, Euskaltel eta Telekomunikazioetako Enpresen Elkartearen laguntza izan du Mondragon Unibertsitateak master hau antolatzeko.

Ikasleak lizentziadunak dira, bai informatikan, fisikan

edo ingeniartzan. Gehienek ere ez dute inongo arazorik izango lana aurkitzeko.

Dagoeneko enpresa batek egin dio lan kontratua ikastaro honetako ikasle bati. Unibertsitateak berak beste ikasle bat hartuko du. Eta maste- rreko beste babesleak -El Corte Ingles, Euskaltel eta Gaia- prest izango dira hemengo graduatuak kontratatzeko.

Egiaztatu egiten da, bai, karrera honen arrakasta.

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu jostekak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerrak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - beheka • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

•ARTEA•

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95
ARRASATE



OMU

ZERAMIKAK

Zeramika, arte unibertsala

Orain erakustoki berria, Ignacio Zuloagan

Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4 • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE

Auzo Lagun mugak zabaltzen

Auzo Lagun kooperatiba geroz eta handiagoa da. Izan ere, sukaldaritzan aritzen den beste enpresa bat erosi du orain-tsu Nafarroan.

Antsoainen dago enpresa hau eta Jangarria izena du.

Enpresa hau ez da kooperatiba, baina denborarekin langileek, 160, bazkide egiteko aukera izango dute. Auzo Lagunek moduan, Jangarria enpresak taldeentzako jakiak prestatzen ditu.

Beraz, erosi duen azken honekin, hiru dira Auzo Lagunen sukalde zentralak. Arrasaten dago lehenengoa eta Iruenen bigarrena.

Maribi Orobengoak, Auzo Laguneko taldeentzako sukaldaritzaren arduradunak azaldu digunez, Auzo Lagunek hazi



Hiru sukalde zentral ditu orain Auzo Lagunek.

nahi duelako erosi du Jangarria enpresa.

LIDERRA

Arrasateko kooperatiba bere eremuan liderra da inguruetan. 1967an sortua, ISO 9002 kalitate ziurtagiria lortu zuen

lehenengo sukaldaritzaren enpresa izan zen estatu espainiarrean. Dagoeneko 1.300 langile ditu eta 4.000 milioi pta. ko fakturazioa du.

Antsoainen egindako inbertsioa, ordea, ez da azkena izango.

Monterronetik Erguenera doan oinezkoen ibilbidea abian

Monterronen hasi eta Erguenera joango den oinezkoen pasealekua abian da dagoeneko. Izan ere, aste honetako Gobernu Batzordean pasealekuaren zati hori egiteko lehenengo pausoa eman da: lan horren proiektua egiteko baldintzak onartu dira, hain zuzen ere.

LKS enpresak egindako txosten honetan ezartzen denez, gutxi gorabehera, 500 metro eta erdi izango ditu pasealekuaren azken zati horrek.

Aztertu den ibilbidearen arabera, bestalde, Monterro-

nen hasi eta Zarugalde atzetik jarraituz, Kanpanzarreko bideraino iritsiko da. Han, zubi baten bidez egingo da Erguenera auzorainoko lotura. Hala ere, proiektua egin da dagoenean baliteke ibilbideak aldaketaren bat edo beste izatea.

2001. URTERAKO

Gauzak horrela, orain hiru hilabeteko epea dago pasealekuaren azken zati horren proiektua idazteko. Ondoren beste sei hilabete daude proiektua onartzeko eta adjudika-

tzeko. Eta beste 9 hilabete lanak egiteko. Beraz, guztia batuz gero, 2001. urtearen amaiera inguruan bukatuta egongo litzateke Gernika izeneko oinezkoen pasealekua.

Mondragoeko Udala orain 15 urte hasi zen proiektua lantzen. Kontua da industrializazioak eraginda, herrigunetik urruti etxebizitza asko eraiki zela garai hartan. Hori konpontzeko asmoz pentsatu zen oinezkoentzako pasealekua egitea, Musakolan hasi eta San Andreseraino helduko dena.

Zaborrak batzeko modu berriak aztertu dira

Herriko zaborraren kontura hainbat arazo izan eta herri-tarren kexua jaso ondoren, badirudi auzia konpontzeko bidean dela. Izan ere, udaleko Zerbitzu Batzordeak zaborra batzeko alternatiba berriak aurkeztu ditu. Lau alternatiba berri proposatu ditu batzordeak.

Bata, zaborrak egunero jasotzeko aukera, biltzeko lekuak oraingo berberak izango lirakeelarik.

Bigarren aukera, oraingo zaborlekuak berrantolatzea litzateke. Orain baino bilketa-leku gutxiago egongo lirakeke, baina, era berean, bilketa egun gehiago izango lirakeke.

EDUKIONTZIA

Hirugarren alternatiba edukiontzia jartzea da eta lau-garrena, berriz, edukiontzia lurperatzea.

Txosten hau Arrasateko Udaleko Gobernu Batzordeak onartu ondoren, orain, Deba Garaiko Mankomunitatera bidali da.

Mankomunitateak aurkeztutako lau alternatibetatik lehenengo hiruen balorazio ekonomikoa egin behar du. Modu honetan, datu guztiak esku artean izanda, Mondragoeko Udalak horietako bat aukeratu beharko du.



LOGOPEDIA ZENTRUA
ARRASATE

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



ZAHARRAK BERRI

Zer hoberik afari bat baino elkar ezagutzeko? Horixe pentsatu zuten Zahar Berri proiektukoek ere. Ikasle berriak afarira gonbidatu zituzten orain bi aste. AEDn egin zuten eta euskal giroa izan zen nagusi.



ZORIONAK TXAPELDUN!!!

Hona hemen perretxikotan txapeldunen artean txapelduna. Tomas Zubillaga da, noski, eta duela gutxi Galdakaon Bizkaiko Perretxiko lehiaketa irabazi zuen. 15 egunez perretxikoak batzen ibili zen, Floren Jimeno laguntzaile zuela.

Hydnum Hericium Herinaceum izena du perretxiko honek. Ezkerrekoak 2 kilo pasatxo zituen eta eskuinekoak ia 6 kilo.



IRABAZLEAK TOLOSAN

Sara Vitoriak, Anuska Ezkurrak, Maider Ruizek eta Ainhoa Ruizek, laurak ere Goikobalu abesbatzako kideak, bi sari irabazi zituzten Abesbatzen Nazioarteko Lehiaketan, Tolosan, Oi Lur abesbatzarekin abestuz: lehen saria polifoniaman eta bigarren saria folklorea. Zorionak!



**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

Sagardotegia

ITURRIETA

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

**Plus Ultra
taberna**

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57

500 urteren ostean, Arant

Arantzazu nahiko ezaguna da bai guretzat eta baita inguruko gehienentzat ere. Santutegia ikusgarria da, parajea ere bai. Gainera, Euskal Herriaren Historiarekin lotutako makina bat ekintza egin edo bultzatu dira hantxe. Horrek guztiak erakargarri egiten du tokia.

Gehienok, ordea, Arantzazu santutegi moduan ezagutzen dugu eta kitto. Han frai-

deak daudela ere badakigu, baina ez askoz gehiago. Kontua da, baina, batez ere azken hamar urteotan, gauzak asko aldatu direla han goian.

Makina bat urte irakaskutzan jardun ondoren, 1991-92. ikasturtean itxi egin zen Arantzazuko eskola. Eraikin benetan handiak hutsik geratu dira, ondorioz.

Honetaz gain, azken urteotan fedeak izan duen bilakaerarekin bat, fraideak asko urritu dira Arantzazun. Aurten soilik 48-50 inguru geratzen dira, hura guztia zaintzen.

Beraz, orain kezka da nagusi Arantzazun.

Argi dago, Santutegiak berak etorkizun nahiko oparoa duela, turista asko erakar-

tzen ditu, udaberri-uda garaian, bereziki. Beste guztia, aldiz, "zalantzan" dago. Eta asko da galtzeko dagoena.

HASIERA


Historia benetan luzea eta sakona darama Arantzazuk bere bizkarrean. Pentsa, datorren urtean bostehun urte beteiko dute frantziskotarrek Arantzazun. Hain zuzen ere, 1468.

urtean hasi zen Arantzazuko historia. Idazkien arabera, San Bernabe egunean, Uribarri auzoko Balzategi baserriko artzain batek Amaren irudia aurkitu zuen arantza artean. "Arantzan zu!" harridurazkoa atera omen zitzaion artzainari. Hortik aurrera, ordua arte ia inork ezagutzen ez zuen paraje hark bazuen izena eta, noski, izana.

Elizgizonek argi ikusi zuten agerpenaren inguruan zerbait eraiki beharra zegoela. Hasierako urteetan, hainbat talde pasatu ziren handik. Ez ziren, ordea, denbora luzez geratu. Orduan ez zegoen biderik igotzeko. Gainera, Arantzazu paraje mortua baino ez zen, hotz handiak eta negu gogorak jasaten zituen lekua. Horregatik alde egin beharra. Frantziskotarrak heldu ziren arte. Hauek iritsi eta hantxe daude harrezkero.

URREZKO MENDEA

Ez dago zalantzarik, urte haueetan guztietan gauza ugari egin direla Urbia mendiaren magalean. Dena hemen kontatzea ezinezkoa litzateke. Hala ere, XX. mendera etorri gero, ikusten da gu bizi garen garai honetan ere Arantzazuk izugarriko garrantzia izan duela kristautentzat, noski, baina



Arantzazuko Santutegiak liskarra sortu... al He


baita euskaldunontzat ere. Are gehiago, Arantzazurentzat, berarentzat ere, urrezko mendea hauxe izan dela esan genezake.

Hasteko, XIX. mendearan azken urteetan Arantzazuko Ama koroatu zen. Hau da, Elizak nolabaiteko baieztapen ofiziala eman zion Ama Birjinaren agerpenari. Ondorioz, makina bat festa eta erromesaldi egin izan dira hortik aurrera. Era berean, gure men-



Ama Birjinaren arantza artean agertu izana irudikatzen da harmarrian.

Arantzazu ahaztuta dugu?



Herrián. Garai horretarako aurreratuegia zela eta, jende asko ez zegoen ados. Vatikanotik egiteko debekua ere jaso zen.

gi berria eraikitzeko azken lanak egin ziren. Orain hainbesteko ospea ekarri dion santutegia, hain zuzen ere.

Hala ere, mende honetakoak urrezko urteak izan diren moduan, mendearen bukaeran beherakada nabarmena bizi izan du Arantzazuk.

APAIZGAITEGIA ETA ESKOLA

1908. urtean sortu zen apaizgaitegia. Hasieran hantxe zegoen eraikin zaharra erabiltzen zen horretarako. Laster, 1940an, handitu egin behar izan zen. Gerra osteak eraginda, bokazioek gora egin zuten eta horren ondorioz, Teologia ikasten ari zirenetzat ere lekua egin beharra zegoen.

Bitxikeria moduan: 50.eko hamarkadan, frankismoaren garaian, beraz, euskara irakasten zen Arantzazun.

1968. urtean, bestalde, orain ikusten ditugun eraikin handiak egin ziren, 92-94 metro luzeko eta zazpi solairuko eraikin galantak. Garai batean 300 ikasle bildu izan dira Arantzazun ikasten.

dearen hasieran Gipuzkoako zaindari izendatu zuten Arantzazuko Ama Birjina.

Honetaz gain, eta hasierako urte haietan, apaizgaitegia ireki zen Arantzazun. Urteek aurrera egin ahala, apaizgaitegi izatetik, OHoko eskola izatera iritsi zen.

Hasieran jende ugari erakarri zuen Arantzazura apaizgaitegiak. Eskolak ere bai. Esan beharra dago, gainera, han egin diren berrikuntza eta


eraikin gehienak horrekin lotuta egin direla.

Arantzazuko abesbatzak eta bandak ere urte oparok izan dituzte mende honetan, izen handia lortu zuten, batak zein besteak. Arantzazura igotzen ziren erromesei ongi etorria ematen zitzaien musikaren bitartez. Euskal Herrikanpo ere ibili da abesbatza behin baino gehiagotan.

Mende honekin bukatzeko, 60. hamarkadan santute-



Aitxor ugari daude Arantzazun; 500 urtetik gorako liburuak ere badaude.



1870. urtean Arantzazuk itxura hau zuen.



1930. urtean dagoeneko majo handituta zegoen.

Kontua da garai haietan ez zegoela ikasteko leku larregirik eta, horregatik, geroz eta gazte gehiagok jotzen zuten Arantzazura.

Irakaskuntza zabaltzen hasi zenean, aldiz, egoera aldatu egin zen Arantzazun. Hara joaten edo bidaltzen ziren ikasleak, gero eta gehiago joaten ziren fraideek irakaskuntzan zuten ospeak erakarrita, eta ez bokazioak eramanda. Era berean, Arantzazuko eskolak barnetegi moduan funtzionatzen zuten (ikasleek han egiten zuten bizimodua), seme-ekin arazoak zituzten gurasoentzat ihesbide bilakatu zen hura zenbait kasutan. Halako gehienak, noski, bokaziorik barikoak ziren.

Egoera berria ikusita, apaizgaitegia eskola bihurtzea erabaki zuten fraideek.

10-14 urteko mutikoei zuzendutako eskola izan zen hura. Hiru urte ematen zituzten Arantzazun. Horren ostean, mutikoei Gernikarako bidea hartzen zuten, Forura.

ARANTZAZU MENDEZ MENDE

1469: Ama Birjinaren irudia arantza artean aurkitu omen zuen Rodrigo de Balzategi artzainak. Irudiaren ondorian kanpai bat agertu zen.

1493: Lehenengo elizgizon taldeak igo ziren Arantzazura. Hasierakoak, Juana de Arriaran serorak bultzatuta. Bera izan zen irudia zaindu zuen lehena. Bere semeak jarraitu zion. Hala ere, bizi egoera gogorren ondorioz, ez zuten urte asko egin goian.

Tarte honetan Oñatik eta Mondragoek bide bat egin zuten Arantzazura. Ondorioz, erromesaldiak izugarri ugairitu ziren.

1514: Zazpi erlijio ordena pasatu ostean, frantziskotarrak geratu ziren Arantzazun. Izan ere, 1501. urtean, Ale-

jandro VI Aita Sainduak frantziskotarren esku utzi zuen Arantzazu behin betiko.

1553: Santutegia erre egin zen.

1618: Dena berreskuratu eta kapera nagusi berria ere egin zen.

1622: Bigarren aldiz erre zen; guztiz.

1834: Hirugarren aldiz erre zen. Oraingoa Karlista Gerran, Rodil liberalaren aginduz.

1846: Tenplua berreraiki egin zen.

1880: Arantzazura iristeko bidearen azken zatia egin zen. Honen ostean, Arantzazu berpiztu egin zela esan daiteke. Erromesaldiak ugairitu egin ziren berriro.

1886: Ama Birjina koroatu zuten.

1908: Apaizgaitegia sortu zen.

80ko hamarkadaren amaieran, aldiz, LOGSE etorri zen. LOGSEk irakaskuntzaren jarraipena eskatzen zuen. Arantzazuk ezin zuen hura eskaini eta, esan bezala, 90-91. ikasturtean behin betiko itxi zuten eskola eta, ondo-

rioz, eraikin osoa.

ETA ORAIN ZER?


Gaztetxoek, beraz, alde egin zuten Arantzazutik. Nabarmen hustu zen paraje hura. Horrekin batera, fraideak ere

Arantzazuren ordeztu Guggenheimek eraman zituen Jaurilaritzako asmoak eta diruak

**OSORIK
PUB**
Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

CE **ERRASTI KRISTALDEGIA**
**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**
Olarke kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

**ZUBIZARRETA
LANTEGIAK**
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65



Egindako berrikuntza guztien ostean itxura hau erakusten du orain.

honetan Guggenheim muse-
oak eraman zituen asmoak eta
diruak.

Beraz, orain inork ez daki
Arantzazurekin zer gertatuko
den. Ezta fraideek beraiek ere.

Euskaldunontzat hain
esanguratsua den lekua ustel-
tzen ari da, zati handi batean.
Eta ez dago inortxo hori saihe-
teko. ■

Ubane Madera

ARANTZAZUKO FRAIDEEK GIZARTEARI EGINDAKO EKAR- PENA (mende honetakoa)

Jose Adrian Lizarralde: Urbiako elizatzoxa egin zuen orain
75 urte.

Jose Ignacio Lasa: Urbiako "artzainen artzain", berari gus-
tatzten zitzaien bezala.

Demetrio Garmendia: idazlea eta herri-mixiolari handie-
takoa.

Eugenio Agirretxe: idazlea eta herri-mixiolari aparta.

Pablo Lete: eskoriatzarra, Arantzazuko basilikaren erai-
kuntza sustatu zuena.

Jose Alberdi eta Pablo Alberdi: Leintz bailarakoak, mixio-
lari handiak Txinan eta beste hainbat tokitan.

Jose Arrue: Leintz bailarako hau ere, musikalaria, Aran-
tzazuko Bandaren gidaria.

Inazio Omaetxebarria: idazle eta jakintsu aparta.

Salvatore Mitxelena: idazlea eta olerkaria.

Luis Villasante: idazlea eta Euskaltzainburu urte askoan.

Bitoriano Gandiaga: idazle eta olerkaria.

Fraidetza utzi eta kultura-gizon ospetsuen artean, lau baka-
rrik, mostrarako:

Manolo Urbieta

Joxeba Intxausti

Joxe Azurmendi

Joan Mari Torrealdai

Erreportaje hau egiteko erabili den informazioa lortzeko
Aita Pello Zabalaren ezinbesteko laguntza jaso dugu.
Aita Villasanteren "Santa Maria de Arantzazu Patrona
de Gipuzkoa" liburuak ere lagundu digu.


- 1. Arantzazura ura eroateko lanak hasi ziren.
- 1. Gipuzkoako zaindari izendatu zuten.
- 1. Santutegi berriaren lehenengo harria ezarri zen.
- 1. Basilika berria inauguratu zen.
- 1. Eskolarako eraikin berriak egin ziren.
- 1. Santutegiarekin izandako liskarren ondorioz, hainbat urtez bazterturik izan ondoren, Jorge Oteizaren apostoluak orain dauden lekuan ipini ziren. Eraikinaren aurrealdean dagoen *Pieta* ere ordukoa da. Txabi Etxebarrietaren heriotzean inspiratuta egin bide zen *Pieta* hura.
- 1. Basilikaren aurreko plazatxoa egin zen.

gutxitu egin dira asko. 50 bes-
terik ez dira orain. Horietatik
sei bat dira 60 urtetik behe-
rakoak; beste guztiak adine-
an sartutakoak dira.

Honek guztiak hainbat
zalantza eragin ditu: batetik,
fraideen etorkizuna; bestetik,
hango eraikuntzera.

Eskola itxi zenean Eusko
Jaurlaritzari eskaini zitzaion
hura guztia, edozertarako
aprobetxa zezan. Jaurlaritzak,
aldiz, hura handiegia zela eta
ezetz erantzun zuen.

Museo izateko aukera ere
aztertu zen, Jaurlaritzatik Eus-
kal Herriko museoentzako
programa egin zenean. Kasu



Eraikin hau hutsik dago 91-92 ikasturteaz geroztik.

AGUSTIN MARKAIDE (EROSKI KOOPERATIBAKO ZUZENDARI BURU)

“Produktuen bizitza”

Kontseilu Errektoreko kidea zen Eroskin eta bide batez, nekazaritza eta elikadurako kooperatibetan ari zen. **Beti MCCren barruan. Batetik bestera pasa zuten: hornitzaile izatetik erosleen arteko harremanetara. Egun Eroski Kooperatibako zuzendari orokorra da Agustin Markaide arrasatearra, Oleaga baserriko semea.**

— Ze lan izan duzu?

— Eroskiren zabalkunde proiektuan sartu nintzen. Hemendik kanpo proiektu berriak irekitzen hasi nintzen, batez ere Espainiako iparraldean. 2-3 urtera Eroski kooperatibako zuzendari-orde izendatu ninduten eta hiru urtera zuzendari. Orain hipermerkatu guztien eta kooperatibaren zuzendari izendatu naute.

— Hori dena, ez da asko?

— Dena batera etorri izan balitz, gehiegi izango litzate-

ke, baina poliki etorri da eta moldatu egiten da; azken batean kopuru kontua da. Izaera bereko arazoan gestioa da; izaera ez da aldatzen, dimentsioa aldatzen da eta dimentsioetara ohitu egiten zara. Oso lan aberatsa da. Pertsona ere aberastu egiten du, nahiz eta, asko eskatzen duen.

— Noraino iritsi nahi du Eroskik?

— Nork daki? Aurten kooperatibak 30 urte beteko ditu. Orain dela 30 urte elkartu zirenak Eroski zer bihurtu den ikusiko balute, ziurrenik ez lirakeke ohetik jaiki ere egingo. Hemendik 30 urtera zer izango garen, auskalo. Gure nahia elkarlanean aritzea da eta kontsumitzailearen beharrak asetzea. Nola edo hala, beste 30 urte barru ere horixe egiten arituko garela ziur nago.

— Nola egiten die aurre

Eroskik kanpotik datozen beste supermerkatu kateei?

— Orain hamar urte gaurak aldatzera zihoazela ikusi zuten eta *Consumekin* elkartu zen. Ohiko merkatuetatik aterra ziren, lehiakide bila. Orain hemen kompetentzia izatea normalizat jotzen da, hainbat lekutan horretara ohitu garelako.

— Ekonomilaria eta abokatuazara. Bietatik zein nahiago?


— Nire

burua gaur egun ez nuke ez abokatutzat ez eta ekonomilaritzat joko. Karrerak baino gehiago lanak erakutsi dit. Baina karre- ra bezala, ekonomilariarena nahiago. Oreakatuagoa da. Hobeto prestatzen du arazoei aurre egiteko.

— Consumer aldizkarian egiten dituzuen produktu konparazioetan ez dauka Eroskiren produktu zuriak.

— Ez ditugu

“Gure nahia elkarlanean aritzea da eta kontsumitzailearen beharrak asetzea”



ROKORRA)

motza da”

kontuan hartzen, ez onerako ezta txarrerako ere. Onerako ez litzateke zuzena izango. Publizitatea egingo genieke gure produktuei. Kalterako balitz, ezingo genuke produktu hori saldu. Análisiak egiten ditugu eta horren arabera hautatzen ditugu saltzeko produktuak, baina ez ditugu datu horiek argitaratzen.

— Jaki transgenikoei buruz zer dio Eroskik?

— Gure jarrera prebentzioa izan da. Gaiari buruzko ziurtasunik ez dagoenez, Consumer markan eta elikadurako bere beste marka gomendatu batzuetan elikagai transgenikorik ez sartzea erabaki genuen eta gureak ez direnei, etiketetan zehazteko eskatzen diegu.

— Zuen produktuak aldakorrak dira. Badirudi Eroskik saldu nahi duena baina ezin dela erosi. Zergatik horrenbeste aldaketa?

— Arazo nagusia da produktuak azaltzeko eta saltzeko izaten den lekua. Urte osoan zehar denda erakargarria eduki nahi izaten dugu eta hiler, hamabostero eta, asko jota astero, eskaintza bereziak sartzen dira. Horren eraginez, produktuaren bizitza motza izaten da dendan. Bestetik, hornitzaile berri bat sartzeko beste bat atera egin behar da.

— Ez du eroslearen leialtasuna apurtzen?

— Arazo handiagoa litza-

teke jendeak berritasunik ez aurkitzea eta beti denda bera ikusiko balu. Garrantzitsuago da dendarekiko leialtasuna produktuarekiko baino. Merkaturatzen diren produktuetatik mantentzen direnak oso gutxi dira. Ikerketa batek adierazi duenez, 100etik batek baino ez du segitzen bi urtera. Hilkortasun handia dago merkaturako produktuen artean.

— Aldi baterako kontratazioak salatu dituzte Eroskiko langileek.

— Eroskiko langileen %25 aldi baterakoak dira. Gure sektoreko ehunekorik txikiena da, eta aldi berean, enpresa sektorean ere gutxi izango dira horren azpitik daudenak. Merkataritzan ezinbestekoa da lan mota hori. Komertzioan lanak punta asko ditu eta horiek betetzeko dira aldi baterako kontratuak.

— Premiazko produktuen eta bestelako arteko salneurrien aldea zergatik da horren handia?

— Gure sektorean gutxi irabazten da. 100 pezetako, bi irabazten dira. Baina egia da zeozertan ezagunak izan nahi badugu, lehen mailako elikaduran dela. Hortartea oso txikia da. Horrek ez du esan nahi beste gauzak askoz ere garestiago izaten direnik. Baina hainbat produktuekin ez dugu zirkuituetatik kanpo erosten edo espekulaziorik egiten eta merkaturatuak prezioak gora egiten badu, guk ere berdin jokatzen dugu. ■

EMAKUMEON TXOKOA

“Lana aurkitzeko bideak” ikastaroa

Ikasketak dituzten emakume langabeentzat
Izena emateko epea: azaroak 29

Helburua: Lana aurkitzeko orientabidea eta laguntza ematea
Argibideak Arrasateko Udaleko Emakume Sailean 943 79 41 39

Transexualitate Lantegia

Helburuak:

- Transexualitatearen oinarri zientifikoak: antropologia, medikuntza, soziologia...
- Bizipenak landu: zentsuak, irudia, imaginarioa...

Noiz: Azaroak 20, larunbata

Ordutegia: Goizez 10:00 - 14:00 eta 16:00 - 20:00

Non: Musakolako Ikastetxean

Antolatzailea: Udal Sexualitate Zerbitzua 943 79 80 10

Laguntzailea: Emakume Saila eta Arrasateko Emakumeen Asanblada

“Sexualitatea edo pertsona desgaituak: non dago zailtasuna?” hitzaldia

Hizlariak: Goretti Orbea eta Bittor Arginariz hezitzaileak

Noiz: Azaroak 25, osteguna, arratsaldeko 19:00etan

Non: Montereoneko hitzaldi aretoan

Antolatzailea: Udal Sexualitate Zerbitzua

ARGIBIDERIK NAHI IZANEZ GERO DEITU 943 79 41 39 TELEFONORA. POSTA ELEKTRONIKOEA ERE ERABILI DEZAKEZU: emakume@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■

Kajoi: beste modu bateko tabernaritzza

1987an Urizar taberna nahi-ko egoera kaxkarrean zegoen. Bere onenak aspaldi emanda, izenak ere ez zuen distira handirik. Horregatik, Antonio Murillo eta Jesus Romero gazteek hartu zutenean, aldatu egin zioten izena.

Hamar urterako hartu zuten, alokairuan. "Alokatu bai, baina goitik behera berriztu genuen, guretzat inportantea baitzen berrikuntza erakustea. Harrezkero, hiruzpalau urtez behin berrizten dugu".

Ausartak izan dira Antonio eta Jesus eta, horri esker, ondo joan zaie. 1997an beste hamar urterako alokairu-kontratua egin zuten. Horrez gain, Ostantz taberna erosi zuten, Ferrerias kalean. Dena batera daramate, baina Jesus Ostantzen ibiltzen da eta Antonio Kajoin.



Jesus Romero eta Antonio Murillo.

BERRIKUNTZAK

Besteengandik bereiztu nahi zuten eta segituan hasi ziren ekintza osagarriak antolatzen: antzezlanak, musika emanaldiak (klasikoa, jazza, trikiti-xa...), argazki eta margo erakusketak, tango lehiaketak,

etab. Gehienak uda partean antolatzen dituzte, plazako terraza erabiliz. Jendeak begi onez ikusi ditu ekintza hauek.


Babesle gisa ere urteak daramatzate: zazpi errugbi taldea babesten eta lau nesken futbol taldea.

TXIKITEOA

Lau zerbitzari eta garbitasuneko andra ari dira lanean, Antoniorekin batera. Languetan 10:00etatik 01:30era izaten dute taberna zabalik. Jaiegunetan, ostera, eguerditik 03:30ra. Egunean 130 kafe ematen dituzte, batezbeste.

Txikiteoa dexente jaitsi da, Antonioren esanetan. Txikiteozalerik handienak adineko gizonak omen dira. Andreek, berriz, nahiago izaten dute kafea. Eta gazteak? "Txikiteoa egiten dute, baina zuritoak eta garagardoarekin".

Hala ere, uraren kontsumoa izan omen da urte haue-tan bizi izan duten aldaketarik handiena. "Hasieran kaxa bat ur saltzen genuen bi hila-betean; gaur egun, ordea, aste-an hamabi".



Mugikorrak hitz egitea garesti?



Airtel Club-ekin,
12 pta/min.
15 orduz, egunero.

ALTA DOAN AIRTEL CLUB-EN SARTZEAN*

Telefonia mugikorrari beldurrik ez. Orain, Airtel Club-en Arratsaldez Planarekin telefono finko batera dei egin ahal izango duzu 17:00etatik 08:00etara 12 pta/min.-ko kostuarekin**. Baita asteburu osoan ere. Eta gogoan izan, Airtel Club da mezuak erantzungailuan doan jasotzeko aukera ematen dizun bakarra. Goiez Planari buruzko argibideak ere eska itzazu. Badakizu, Hitz egin nahi baduzu, ez beldurrik izan. Eman izena Klubean.

**ESKAINITZA HONEN 99/141K/99/10/17RA BITARTEAN EGINDAKO ALTETARAKO BALIO DU. ZEHARRAKO ZERBIKAK EZ DAUDE BARRNE. DEIA EZARITZERO KOSTUA 20 PZTA. EMANDAKO ZERBITZUAK BALDINTZA OROKORRENEAN AHAIBERAKOAK DIRA.

Terminalen salneurriagatik ez kezkatu, argibidetarako:

AIRTEL ARRASATE
Maalako Errabala, 33
20500 Arrasate
Tel.: 943 79 50 32



Altxorraren bila larunbatean



Datorren larunbatean altxorraren bila aterako dira Arrasate Kirol Proiektuan ari diren neska-mutikoak. Psikomotrizitatean ari diren neska-mutiko banakin berbetan izan gara. AKPn egiten dutena eta astebururako duten hitzorduz aritu gara Elena Arkarragaurizar eta Josu Beltranekin. Zazpi urte baino ez dituzte.

☺ Zer egiten duzue AKPren kirol saioetan?

— Jolasean aritzen gara. Denetariko jolasetan aritzen gara, gainera. Harrapaketan, uztaiekin, baloiarekin...

☺ Zein da gehien atsegin duzuen jolasa?

— Uztaiekin aritzea dugu gustukoena. Baita txatxilipuriak egitea.



Josu eta Elena.

☺ Baina zer nolako jolasak egiten dituzue?

— Baloiarekin eta aulkiekin ariketak egiten ditugu eta oso entrenigarriak dira, asko mugitzen garelako.

☺ Noiz etortzen zarete?

— Astean birritan, eskolatik atera eta gero. 16:30eatik 17:30eara. Baina asteburuetan antolatutako ekintzetan ere hartzen dugu parte.

☺ Asteburuan altxorraren bila joango zarete?

— Bai, larunbatean joango gara. Arrastoak idatzita dituen paper bat emango digutela esan digute. Han dagoena bete behar dugu eta poliki-poliki altxorra dagoen lekura hurbitzea lortu behar dugu. Monterronen elkartuko gara.

☺ "Altxorraren bila" jokoa larunbatean hasiko da Monterronen 10:00etan eta 11:30ean.



Erguin herri eskolako multikirol taldea.



San Andres herri eskolako aurrekiroleko taldea.

Taldez talde

FLOORBALL TXAPELKETA

- 1- Merced B
- 2- Erguin B
- 3- SFX E
- 4- SFX A
- 5- San Viator B
- 6- SFX D
- 7- SFX B
- 8- SFX C
- 9- Aramaio
- 10- SFX U
- 11- San Andres
- 12- San Viator A
- 13- Merced A
- 14- Erguin A
- 15- Musakola

Asteburuko hitzorduak

Azarook 13, larunbata

MINIESKUBALOI TXAPELKETA

☺ 4. jardunaldia

NESKAK

Iturripen


- 10:15 Merced - Erguin
- 11:00 SFX A - SFX U
- 11:45 S. Viator A - S. Viator B

MUTILAK

Iturripen

- 09:30 SFX A - Aramaio
- 09:30 SFX B - San Viator B
- 10:15 San Viator A - Erguin
- 11:00 SFX C - SFX U
- 11:45 Merced - San Viator C

FUTBOLA Neskak eta mutilak




Garaipena eta azkenengo 25 minutu zoragarriak. Mondra eta Urolaren arteko futbol partida. Lehen zatian 0 eta 0eko berdinketarekin amaitu zen. Bigarreanean aurkako emaitzari buelta ematen jakin zuten etxekoek. Lehenengo gola Urolak sartu zuen. Partidako azkenengo 25 minutuetan Mondraren garaipena etorri zen. Jon Muruamendiarazek sartu zituen bi golak. Azkenean, 2 eta 1, etxekoan alde, Mondrak galdu barik segitzen du.

Mondrako neskek batean galdu eta hurrengoan irabazi egiten dute. Jarraian etxean jokatzeko zuen bigarren partida zen. Orain dela bi aste galdu egin zuen eta joan den aste-

an txanponaren beste alde: garaipena. 2 eta 0 irabazi zuten. Alaitzek sartu zuen lehenengo. Bigarrena penaltiz izan zen. Oraingoan, usteak bete egin ziren. Irabazteko moduko taldea zen Legazpiko Ilintxa eta horixe egin zuen errejonaleko neska taldeak.

ERRUGBIA Etxean onenak



European aritu behar izan zuten berriz ere errugbilariak larunbatean. Baina badirudi hori dela emaitza onak lortzeko bidea. Izan ere, eurak izan ziren onenak Garagartzako errugbi zelaian. Lehen zatian 12 eta 0eko tarte zuten entsegu biri esker. Mikel Etxebestek egin zuen Arratiako Txekorren aurkako lehenengo entsegu eta

bigarrena, Markel Elortzak. Bigarren zatian ere erasoan saiatu ziren etxekoak eta beste bi entsegu egin zituzten. Azkenean 29 eta 0 irabazi arratiarrei.

SASKIBALOA 5.ean kale



Nafarroan galdu egin zuen senior mailako saskibaloitza taldeak. Egan, Lizarra taldearen aurka 70 eta 63 galdu zuen. Kenciko lau jokalariek ezin izan zuten jokatu, min hartuta daudelako: Coca, Garrido, Aiala eta Basurkok. Partidaren lehen zatian aurretik joan ziren Arrasatekoak eta 8 puntuko alde izan zuten une oro. Bigarren zatian ere aurretik joan ziren. Baina azkenengo hiru minutuetan Lizarrakoek

jokoa azkartu eta partida bereganatu egin zuten.

Beste taldeek ere ez zuten garaipenik izan jardunaldi honetan. Beraz, ez zen aste ona izan saskibaloikoentzat.

ESKUBALOA Orain ere, ezin



Ez dira denboraldi ona egiten ari Arrasate Almen eskubaloitza taldekoak. Etxean jokatu zuen Zumarragako Urolaren aurka. Urolak bi goleko alde lortu zuen eta horrek arazoa ekarri zizkion etxeko taldeari. Bigarren zatian arrasatearrak kontraerasoan aritu ziren eta defentsan ere lan ona egin zuten. Baina azkenean 19 eta 23 galdu zuten Bernardo Balerdiren taldekoek.

Emaitzak

ERRUGBIA

- **Seniorrak:** Arrasate 29- Arratiako Txekorrak 0
- **Gazteak:** Arrasate 21- Bera Bera 40

FUTBOLA

- **1. mailako errejionala:** Mondra 2- Urola 1
- **Ohorezko mailako gazteak:** S. Tomas Lizeoa 2- Mondra 1
- **2. mailako gazteak:** Arrasate 2- Antzuola 1
- **Ohorezko kadeteak:** Arrasate 1- Aurrera de Ondarroa 0
- **2. mailako kadeteak:** Elgoibar 5- Arrasate 1
- **Ohorezko infantilak:** Tolosa 2- Arrasate 0
- **Errejonaleko neskak:** Mondra 2- Ilintxa 0

ESKUBALOA

- **Seniorrak:** Arrasate Almen 19- Urola 23

- **Gazteak:** Bergara 14- Arrasate Almen 14

SASKIBALOA

- **Seniorrak:** Egan 70- Kenci-Arrasate 63
- **Juniorrak:** Ordizia 62- Kenci Arrasate 42
- **Kadeteak neskek:** Kenci Arrasate 33- Eskoriatza Almen 27
- **Kadeteak mutilak:** Askatuak B 50- Kenci Arrasate 74

XAKEA

- **Errejonalean:** Orereta 3- San Andres 1

PILOTA

- **Seniorrak:** Arrasaterentzat partida.
- **Juniorrak:** Altza 11- Arrasate 22
- **Kadeteak:** Arrasate 22- Hernani 8

Jokatzekoak

ERRUGBIA

- **Seniorrak:** JAI DUTE
- **Gazteak:** Athletico de San Sebastian - Arrasate
- **Kadeteak:** Zarautz - Arrasate

ESKUBALOA

- **Seniorrak:** Leizaran - Arrasate Almen
- **Gazteak:** Arrasate Almen - Elgoibar, igandea, 11:30

FUTBOLA

- **1. mailako errejionala:** Pedrusko - Mondra
- **Ohorezko gazteak:** Mondra - Euskalduna larunbata, 15:30
- **2. mailako gazteak:** Bergara - Arrasate
- **Ohorezko kadeteak:** Ilintxa - Arrasate
- **2. mailako kadeteak:** Arrasate - Almen larunbata, 10:45

Ohorezko infantilak:

Arrasate - Union Txiki larunbata, 12:30

Errejional maila, neskek:

Bergara - Mondra

SASKIBALOA

• **Seniorrak:** Kenci Arrasate - BKL larunbata, 18:00

• **Juniorrak:** Kenci Arrasate - CD Internacional larunbata, 16:00

• **Kadeteak mutilak:** Kenci Arrasate - Goierrri larunbata, 12:15

• **Kadeteak neskek:** Irurok - Kenci Arrasate

XAKEA

• **Errejonalean:** San Andres - Gros A, larunbata, 16:00

PILOTA

• **Seniorrak:** Arrasate - Eibar larunbata, 12:00

Gipuzkoako Karate Txapelketa

Saioa Karate eskolako zazpi karateka Gipuzkoako txapelketara joango dira asteburuan. Igandean Iker Zabarte, Jorge Sanchez, Maikel Talledo, Patricia Morales eta Sandra Alvarez juniorretan eta Ivan Galan eta Oliver Sanchez kade-

tetan, lehiatuko dira Usurbilen jokatu den txapelketan. Zazpi karatekak kumitetan arituko dira eta sailkatuz gero, Euskal Herriko txapelketarako txartela lortuko dute. Horretarako, lehenengo lauen artean geratu beharko lukete.



Ivan Galan



Oliver Sanchez



Maikel Talledo



Sandra Alvarez



Jorge Sanchez



Iker Zabarte

Trial txapelketa Udalan



Hitzordua, igandean 10:00etan Udalan.

Datorren igandean Euskal Herriko trial txapelketarako baliagarria den proba jokatu da Udalan. Arrasate Motorzale Elkarteak antolatu duen proba hau goizeko

10:00etan hasiko da eta, dirudienek, "20 bat pilotu espero dira. Afizionatu, pilotu eta federakundeko arduradunen artean antolatzen dugu, aurreko urteetan bezala".

Beteranoek bai jakin

Galiziarra joan ziren Errugbi Taldeko beteranoak Domu Santuko zubian. Coruña, hain zuzen ere. Iaz galziarrak izan ziren Arrasaten eta aurreten bisita itzuli behar zieten. Esan digutenez, "bidaia oso luzea izan zen, baina oso harrera ona egin ziguten". Gallaecia taldearen aurka jokatu zuten larunbat arratsaldean. Baina "kementsu eta inoiz baino talde itxura handiagoz lehiatu arren, ezin izan genien irabazi". 4 eta 2 galdu zuten arrasatearrek.

Baina norgehiagoka hauen gauzarik onena duda-



Errugbilari beterano hauek badakite bai, ondo pasatzen.

rik gabe, partidaren hirugarren aldia izaten da. Dotore jantzi eta itsas ondoko jate-

txe batera afaltzera. Igandean Santiagora abiatu ziren, turismoa egitera.

Ehun arrasatear Behobia-Donostian

Ia ehun arrasatearrek hartuko dute parte aurtengo Behobia-Donostian. Jakin dugunez, 189 lagunek eman dute izena Lora-mendi Kirolak dendan. Eman dizkiguten datuen arabera, Arrasateetik 94 lagunek eman dute izena. Adin guztietakoak daude. Beteranoenak Crispin Baldezate eta Manuel Silbar dira. 63 eta 61urtekoak, hurrenez hurren. Gazteenek, 17 urte dituzte: Ander Ansoategi, Igor Eraña eta Jagoba Bergara.

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE


ARAOTZ Merenderua

Ingurune zoragarrian,
lagun artean
ondo pasatzeko aukera

Araotz auzoa, 2 • OÑATI
Tel.: 943 78 35 26



ARAOTZ Merenderua
OÑATI



Dena prest

arunbatean jarriko dituzte berriz ere sareak Zaldibarko eta baita Iturripeko ateetan. Goizeko 08:50ean izango da txupinazoa.

ARRASATE **KIROLAK**
Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

ARO BERRIKO HAMARGARRENA

1989-90eko denboraldian ekin zioten Zaldibarko txapelketari berriz ere. Eta ordutik hona hamar urte pasa dira. Larunbatean berriz ekingo diote herriko eta inguruetako taldeek txapelketa ezagun honi. Milurteko azkena hau ere, dena esan behar bada ere.

Arrasate Pressek, urtero bezala, asteko errebasoa eta jar-

dunaldien berri emango du, bai eta sailkapenen berri ere.

Zortirik onena talde guztiei, hori bai!

BIGARRENIK EZ

Aurten berritasun bat dugu txapelketan: ez da bigarren aldirik jokatuko. Izan ere, A eta B multzoetan zortzina talde sailkatuko dira eta hauek launako beste lau multzotan jokatuko beharko dute. Ondo-

ren, final laurdenetarako sailkatuko dira multzo bakoitzean lehenengo biak.

ARAUDIA

Taldeen izenak asko aldatu diren arren, araudia ia berbera da txapelketa hasi zenetik hona. Dean dela, gogora ekarriko ditugu kontuan izan beharreko gauzarik garrantzitsuenak:

- Taldeak arfuratuko dira

epaileak jartzen. Betebeharra egin ezean, bi puntu eta 8.000 pta.ko diru ezarpena galduko du. Birritan kale eginez gero, taldea kalera joango da.

- Talderen batek arrazoirik gabe kale egingo balu, txapelketa kanpo geldituko da eta 8.000 pta.ko diru ezarpena galdu.

- Taldeak bost jokalarik eta atezainak osatuko dituzte.

- Partidak 50 minutu irango du.

AZAROAK 13, LARUNBATA

Zaldibar

- 08:50 AKTA - Serengeti
- 10:00 Komando Alpargat - Lontxo
- 11:00 Txeyenex - Borrock & Roll
- 12:00 AC Surkos - Giralduilla Conection
- 13:00 Garaje Oscar - Aldibi
- 14:00 Ume Zikinak - Xhasss Ugarte
- 15:00 SAS T - Makanudos
- 16:00 Irati STS - Betrayer
- 17:00 Timoftol SMD - EPEH
- 18:00 DA Iristu - Orlando
- 19:00 KK Jaurilaritzari - Leya

Iturripe A

- 15:00 Etxe Mobil - Sokoakoak
- 16:00 Dribling - Alai Gozokiak
- 17:00 Fraguel Gol - Kobate Harrobia DKB

Iturripe B

- 15:00 IKP - Makai
- 16:00 Kanpazar Harrobia - Totem
- 17:00 Branka Taberna - Etxerat Taberna

AZAROAK 14, IGANDEA

Zaldibar

- 08:50 Atxanta el Retorno - AT Lokala
- 10:00 Koka Juniors Basati - Kamasutra
- 11:00 Bar Nuevo - Saukelu Scream
- 12:00 Aurrera Bolie - Potroak
- 13:00 Goma 2 - You Know

Partida interesgarriak

Azaroak 13, larunbata


Zaldibar

- 10:00 Komando - Lontxo
- 11:00 Txeyenex - B.& Roll
- 13:00 Garaje Oscar - Aldibi
- 16:00 Irati STS - Betrayer
- 18:00 DA Iristu - Orlando

Igandea, 14

Zaldibar


- 12:00 A. Bolie - Potroak



ARRASATE
KIROLAK

Gore-tex jantzietan espezialistak



TERNUA 



Peak Performance

Schöffel

POLAR  mountain



Ehuneko ehun euskaraz

Euskaldun berri asko joaten da euskaltegira euskara ikastera. Eguneroko bizitzan, ordea, horietako gutxi batzuek baino ez dute lortzen euskaraz egitea. Bestetik, euskaldun zaharretan ere euskararen ezagutza askoz altuagoa da erabilera baino. Hori ikusita, AED elkarteak, Erdu-AEKk eta Udal Euskaltegiak Zahar Berri egitasmoa jarri dute abian beste behin ere.

Eneritz Garro Zahar Berri egitasmoa eragileak jakinarazi digunez, "Arrasaten euskararen erabilera igotzea da gure azken helburua. Horretarako euskaldun berriei eragitea bide aproposa izan daiteke. Euskaldun berriek euskara ezagutzearekin bakarrik ez dute nahikoa, eta euskaldun zaharren giroan murgiltzea komeni zaie".

Inguruan euskaldunik ez duenari euskaldun zahar batekin harremana izateko aukera ematen dio ekimen honek. Inguruan euskaldun zaharrak dituenari eta edozein arrazoi-rengatik bizimodua euskaraz egitea lortzen ez duenari, berriz, hizkuntza ohiturak alda-



Zahar Berriko hainbat kide.

tzeko bideak zabaldu nahi zaizkio.

FUNTZIONAMENDUA

Zahar Berri egitasmoaren barruan bi funtzionatzeko modu daude erabilera planen barruan: Bata "Berba laguna" izenekoa da. Hemen hiru lagun elkartzen dira, jeneralean bi euskaldun berri eta euskaldun zahar bat. Besteari, berriz, "Berba taldea" deritzo.

Hilabete guztietako lehenengo ostiralean elkartu eta "poteo bilera" egiten dute, hilabete guztiko plangintza zehazteko. Ondoren, Zahar Berriko partaide guztiei antolatutako ekintzen berri ematen zaie, berri-paper batean.

Zahar Berrikoek ekintza ugari egin dituzte taldean: aste barruan, adibidez, diapositiba emanaldiak, literatura gosariak, talo ikastaroa, partxis

lehiaketa... Asteburuko ekitaldietan, berriz, Garaia, Urdirantz eta Maulera joan izan dira asteburu pasa, mendi irteerak ere egin dituzte. Zaldudondoko ihauterietan ere izan dira...

Hau guztia jakin ondoren norbaiti Zahar Berri egitasmoan parte hartzeko grina sortu bazaio, AEDra joan eta Eneritz Garroekin harremanetan jarri baino ez du.



100 urtetik gora zuekin

- Otorduak
- Ezkontzak
- Karta bereziak

ZELAI ZABAL ETXEA • Tel.: 943 78 13 06 • Faxe: 943 78 00 18 • ARANTZAZU (OÑATI)

KAITIN ALLENDE (ARABA EUSKARAZ-EKO KOORDINATZAILEA)

“Jaiaren arlo guztiak koordinatzea dagokit”

27 urteko arrasatear honek kazetaritza ikasi zuen Leioan, eta publizitatean espezializatu zen gero. Orduz geroztik hainbat hedabidetan aritu da: Arrasate Irratian, ARKOn, Euskadi Gaztean eta Euskadi Irratian, besteak beste. Orain berri, Araba Euskaraz, Arabako ikastolen aldeko jaiak prestatzen dihardu buru-belarri, koordinazio lanetan ari baita.

— Nola hasi zinen Araba Euskaraz jaiak prestatzeko lanetan?

— Okendon denbora asko egiten dut, eta Laudiotik hots egin zidaten. Han egingo da Araba Euskaraz ekainaren 18an, Audio ikastolaren alde. Aurrez ere egin izan da Laudion, 1983. urtean eta 1993.ean.

— Zenbat lagunek diharduzue?

— Ni koordinatzaile ari naiz. Guztira zazpi bat batzorde daude, eta batzorde bakoitzean bizpahiru lagun ari gara. Ondoren, guztia koordinatze arduraren talde bat ere badago. Dena dela, oraindik jendea biltzen ari gara eta egunetik egunera gehiago gara.

— Zein da zure lana?

— Jaiak berarekin dakartzan arduraren guztiak koordinatzea dagokit. Ekonomia komisioa publizitatearekin koordinatu, prentsarekin, emankizunekin, salmentarekin, txoznekin... Arlo bakoitzeko arduradun bat eta koordinatzaile bat dago, eta nik horiekin harreman zuzena izaten dut.

— Aurkezpen ekitaldia ere egin duzue. Zer moduz joan zen?

— Gasteizen izan zen, Vital Kutxak Posta kalean duen prentsa areto batean. Lehenengo aurkezpen ekitaldia izan



zen. Jaiak non eta zein egunetan egingo den esateaz gain, leloa eta logotipoa aurkeztu genituen. Arrakasta handia izan zuen ekitaldiak.

— Zein lelo izango du aurtengo jaiak?

— “Txikia zainduz handitu”. Logotipoak, berri, beldar bat erakusten du. Audio ikastolan, lehenengo promozietako ikasleek, inguruko pinuek botatzen zituzten beldarrekin jolasten zuten jolastokian. Beldar hori zainduz gero, handitu eta tximeleta egingo da. Metafora horretaz baliatu gara gure hizkuntzarekin gertatzea nahi duguna islatzeko.

— Orain arte publizista lanetan aritu izan zara. Oraingo lanarekin badu zerikusirik?

— Publizitatea ere lortu behar da, eta jende askorekin egotea ere funtsezkoa da. Publizitate arloarekin duen horixe da zerikusia.

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• Garraio Zuzendaritzak, hiru prestakuntza-bekatarako deia egin du, goi mailako tituludunei zuzenduta, batez ere enpresa zientziak, informatika edo goi mailako ingeniariatzako lizentziatuei zuzenduak. La Caixa Fundazioak, Alemanian hainbat ekintza burutzeko diru laguntzak aurreikusi ditu: ikasketa eta ikerkuntza lanak egiteko, alemaniera ikasteko, ikasketa bidaia egiteko, udako unibertsitateetan parte hartzeko, e.a. Hainbat epe daude.

■ IKASTAROAK

• Leintz Zeramika Eskolak, zeramika ikastaro bat antolatu du, hastapen eta sakontze mailatan. Ikastaroa astearte eta ostegunetan izango da 19:00etatik 21:00etara. Izena emateko Gazte Bulegoan.

■ LANA

• Irungo Udalak, osasunerako hezkuntza teknikaria eta artxiboko laguntzailea behar ditu. Epea: azaroak 17.

■ LEHIAKETAK

• Eskulangile gazteei zuzenduriko Bilbao Hiria artisautza lehiaketa. 17 eta 25 urte arteko gazteei zuzendua, baldin eta profesional edo autonomo gisa lanik egiten ez baldin badute. Gaia libre, eta neurtuta. Epea: azaroak 25.

• Pasaia Hiria XII. olerki lehiaketa, 15 urtetik gorakoei zuzendua, lan original, argitaragabe eta saritugabeak, euskaraz zein gaztelaraz, gai librean eta gutxieneko 200 bertsoko luzera. Epea: urtarrilak 21.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

“Txikia zainduz handitu” leloa izango du aurtengo Araba Euskaraz jaiak”

ATB

Programazioa

OSTIRALA 12

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatza.
Eulali Mazkarian sukaldariaren plater bat.
- 13:45 Guganda. Aintzane Gardokik aurkeztutako programa (errepika).



Aintzane Gardoki.

- 20:00-20:30-21:00 Berriak.
Eguneko albisteak, Maider Osak aurkezturik.
- 21:30 Astebete. Maider Osak astean izandako albisterik garrantzitsuenak errepasatuko ditu.
- 22:00 Gatza ete Berakatza (errepika.)
- 22:15 Soinuz Blai. Azken orduko bideo klipak, Miren Gonzalezek aurkeztuta.



Miren Gonzalez.

LARUNBATA 13

- 13:30 Jolasplast, Hamaika Magazin, Aurrez Aurre,

Guganda, Soinuz Blai, Astebete.

IGANDEA 14

- 13:30 Jolasplast, Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Guganda, Soinuz Blai, Astebete.

ASTELEHENA 15.

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatza.
- 13:45 Astebete (errepika).
- 20:00-20:30-21:00 Berriak.
- 21:30 Mondrasport. Itxaro Zubillagak eta Xabier Urzelaik asteburuan kirol arloan izan denaren berri emango digute.
- 22:00 Gatza eta Berakatza. (Errepika.)

ASTEARTEA 16

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatza.
13:45 Astebete (errepika).
- 20:00-20:30-21:00 Berriak.
- 21:30 Hamaika Magazin.
Astrologia, sexualitatea, osasuna... Arantzazu Lagunillak eta Ubane Maderak aurkezturik.



Arantzazu Lagunilla.

- 22:00 Gatza eta Berakatza (errepika).

ASTEAZKENA 17

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatza.
- 13:45 Hamaika Magazin. (errepika).
- 20:00-20:30-21:00 Berriak.
- 21:30 Aurrez Aurre. Edurne Mujikak Gregori Markaide elkarrizketatuko du.



E. Mujika eta Gregori Markaide.

- 22:00 Gatza eta Berakatza (errepika).

OSTEGUNA 18

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatza.
- 13:45 Aurrez Aurre. (errepika).
- 20:00-20:30-21:00 Berriak.
- 21:30 Zortziko Txikian. Anartz Agirrek aurkeztu duen programa honetan, Andoni Egaña bertsolari ezaguna elkarrizketatuko du.
- 22:00 Gatza eta Berakatza. (errepika).
- 22:15 Soinuz Blai. Aste honetan Edu Abasolok emango digu musikan gertatu diren azken nobedadeen berri.

OSTIRALA 12

- 13:30 Albiste Aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatza.
Eulali Mazkarianek prestatutako platera.
- 13:45 Zortziko Txikian (errepika).
- 20:00-20:30-21:00 Berriak.
- 21:30 Astebete. Asteko albisterik inportanteenak, Maider Osak aurkeztuta.



Maider Osa.

- 22:00 Gatza eta Berakatza. (errepika).
- 22:15 Soinuz Blai.
Edu Abasolo.



Edu Abasolo.

Gatza eta Berakatzza



Aste honetan **Kontxi Juantorena**, Udalako Uxarte jateko sukaldaria izango dugu *Gatza eta Berakatzza* saioan. Esperientzia luzea du eta aparteko trebezia. Ikusiko duzue.

Datorren astean

NOIZ

Astelehena 15
Asteartea 16
Asteazkena 17
Osteguna 18
Ostirala 19

PLATERA

Zainzuri berde eta ganben nahaskia.
Paella.
Txerri hankak saltsan.
Atuna tomatetan.
Udalatx suflea.

Andoni Egaña

Zortziko Txikian osteguna, 21:30



Andoni Egaña, Euskal Herriko txapelduna, 26 urte zituela.

Inguruko bertsozaleek hau xe izango dute egun handia. *Zortziko Txikian* taldeak Andoni Egaña ekarriko baitu osteguneko saiora. Bere abenturak eta kalenturak azalduko dizkigu. Baita, seguruenik, Baserri bertsolari handiaren zenbait kontu azaldu ere.

Osteguneko *Zortziko Txikian* saioaren bigarren atala izango da. Aurrekoan Gipuzkoako Herri Arteko

Txapelketari eskaini zitzaion saioa, Arrasaten jokatu zen kanporaketari. Bada denbora zenbait Anartz Agirre eta Ainhoa Agirreazaldegi programa hau prestatzen hasi zirela. Lehena kazetaritza ikasten ari da, Leioan. Ainhoa, berriz, bertsolari ezaguna dugu, sari asko irabazitakoa. Biak bergararrak dira, bertsozale handiak eta lotura sendoak dituztenak Arrasaterekin.



Anartz Agirre.



Ainhoa Agirreazaldegi.



Danona

KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

LASER DEPILAZIOA

Itaca Zentru Mediku eta Estetikoak



AZKARRA, BEHIN BETIKOA, MINIK GABEA

Kontsulta eta aurrekontua konpromisorik gabe.

Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 RPS. 492/98

ETXE BIZITZAK

1. Saldu

• Madalena kaleko 13an, hiru gela, sukalde-jantokia, egongela, komuna, trastergia eta ganbara duen etxea saltzen da. Tel.: 630 39 36 21. 21:00-21:45.

3. Errentan emateko

• San Bizente kalean 60 m²ko etxabea alokatzen da, berogailu eta guzti. Erabilera askorako baliagarria. Tel.: 943 79 18 95.

• Jendea behar da Eskoriatzako etxebizitza bat osatzeko. Tel.: 943 71 55 01.

• Etxebizitza alokatzen dut ikasleentzat. Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 79 53 70.

• Etxebizitza alokagai ikasleentzat. Tel.: 943 79 39 02. Gauzez.

4. Errentan hartzeko

• Ikasle batek gela bat alokatuko luke etxebizitza batean, Arrasaten. Tel.: 943 79 47 85.

• Gela bat alokatu nahiko nuke. Tel.: 943 79 03 99.

• Gela bat alokatu nahiko nuke. Tel.: 943 62 13 57.

5. Etxeak osatzeko

• Neska bat behar da Arrasaten, etxebizitza osatzeko. Tel.: 600 64 61 38. 20:00-22:00.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Arrasateko erdialdean dago. Tel.: 630 02 60 45. Xabier.

• Neska bat behar da Arrasaten etxebizitza osatzeko. Tel.: 600 64 61 38. 20:00-22:00.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai Andramari 1, enparantzan. Aretxabaleta. 2.500.000. Tel.: 943 77 02 27.

10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

ETXE BIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineako dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 42 65.

• 90 m²ko toki bat saltzen da Olarte kalean, 43 bis. Tel.: 943 77 03 96.

14. Errentan emateko

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko tokia alokagai. Tel.: 943 79 42 65.

• Uribarri etorbidean 90 m²ko lokala alokagai, lanak eginda. Tel.: 943 79 75 37.

• Uberan 80 m²ko lokal bat alokatzen da, biltegi moduan erabiltzeko. 30.000 pta. Tel.: 943 76 30 84.

LANA

17. Eskaintza

• Mutila prest publizitate edo gutunen banaketa egiteko. Tel.: 943 79 11 46 eta 943 79 98 83.

• Neska gaztea prest asteburuetan lan egiteko. Tel.: 943 79 42 54.

• Emakumea prest atariak, bulego, etabarreko garbiketa lanak egiteko. Tel.: 943 77 06 74.

• Ospital laguntzaile tituludun neska prest arratsaldean lan egiteko, pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 943 79 81 25. Gauetan.

• Erizain kualifikatuak gaixoak zaintzeko prest, etxean, ospitalean edo zerbiztu berezietan. Tel.: 609 55 54 66. Gauzez.

• Neska, umeak zaintzeko prest. Eskola partikularrek ere emango litzuzke, ingelesa bereziki. Arrasaten eta Eskoriatzan. Tel.: 606 75 59 13.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Neska prest orduka garbiketa lanak egiteko. Tel.: 943 71 53 74.

• Esperientziadun emakumea prest goizetan, pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko. Tel.: 943 79 40 72. Vitori.

• Emakumea prest goizez lan egiteko. Tel.: 943 79 40 72. Vitori.

• Neska euskalduna, administrazio eta komertzial tituluduna, prest alor honetako lanak egiteko. Frantsesa

eta ingelesa menperatzen ditut. Tel.: 943 79 45 24 eta 943 75 50 45. Ane. 20:00etatik aurrera.

• Neska euskalduna eta esperientziaduna etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 45 24 eta 943 75 50 45. Ane. 20:00etatik aurrera.

• Esperientziadun emakume euskalduna orduka etxeko lanak egin edo bulegoak garbitzeko prest. Tel.: 943 79 37 68.

18. Eskaerak

• Pertsona bat behar da umea zaintzeko. Tel.: 943 77 17 97 eta 639 45 85 08.

• Pertsona bat behar da sukaldean lana egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Zerbitzaria behar da asteburuetarako. Tel.: 945 44 50 86.

• Neska bat behar dugu etxeko lanak egiteko eta umeak eskolara eramateko. Beharrezkoa autoa edukitzea. Tel.: 943 77 01 73 eta 616 92 49 88. 20:00etik aurrera deitu.

• Umeak zaintzeko pertsona bat behar da. Tel.: 943 77 15 71.

• Prestakuntzarako kontsultore bat behar da, komunikazio teknikan eta giza harremanetan trebatua eta esperientziaduna. Interesatuak 656 41 08 16 telefonora dei dezakete.

• Emakumea behar da umeak zaintdu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 609 03 31 65.

• 25-45 urte bitarteko emakumea behar da Arrasateko arropa denda batean arratsaldetan lan egiteko. Tel.: 943 79 16 12.

• Sukaldaria behar da asteburuetarako. Ahal bada, esperientziaduna. Tel.: 943 78 34 79.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Ingeleseko eta OHoko eskola partikularrek emango nituzke. Euskaraz eta gaztelaniaz. Tel.: 943 79 94 98.

• Ingeleseko eskolak ematen ditu. Talde mugatuak, egun osoan. Tel.: 943 79 18 70.

• Ingeles filologia ikasten ari den gazte batek, ingeleseko eskolak emango litzuzke. Tel.: 943 71 47 85.

• 1. eta 2. Hezkuntza eskolak ematen dira, euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

21. Eskaerak

• DBHko matematikako eskolak hartuko nituzke, 3. mailan. Euskaraz. Tel.: 943 79 17 51. Itsaso.

• Zientzia Ekonomikoetan lizentziaduna behar da eskola partikularrak emateko, euskaraz dakiena. Tel.: 943 79 33 91. 19:00etatik aurrera.

MOTORRA

23. Saldu

• Peugeot motor berri-berria salgai. Zennith 49 c.c., granatea. Prezioa.: 160.000 pta. Tel.: 943 77 11 68.

• Auto hondatuta salgai, 15.000 pezetatan. Gurrpil berriak. Tel.: 943 79 37 68.

• Suzuki SJ413 salgai, hagu, kromadura homologatuta. Lau gurrpil eta olana oparian. Prezioa: 535.000 pta. Tel.: 943 78 14 72.

• Autoa salgai Peugeot 309 GT, 1987koa. Prezio ona eta egoera onean. Tel.: 943 79 20 49.

• Ford Fiesta modela zaharra salgai. Egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 13 75.

DENETARIK

26. Saldu

• Chaman piragua salgai. "Compartimento estanco" du, txaleko berezia, pala, "cubrebañera"; autoan eramateko barrak prezioaren barruan. 50.000 pta. Tel.: 943 77 01 74. Felix.

• Baserriko kiwiak salgai. Tel.: 943 79 97 84.

• Labea salgai, 16 litrokoa. Berria, prezinto eta guzti. 10.000 pta. Tel.: 630 22 25 22. Arratsalde. Ehunate.

• Hiztegi enziklopedikoa salgai. Batxiller, LH eta unibertsitateko ikasleentzat egokia. Tel.: 943 77 05 97.

• HIFI musika katea salgai: pletina, sintonizatzaile, disko jogailu, eta hiru bideko bi baffle. Prezioa negoziatzeko. Tel.: 943 77 05 97.

• SWR Twelve Bass Combo Celestine marka duen 100 Wdun amplifikadorea eta Ibañez baxu elektrikoa dagokion kutxatila eta mantenu osagaiekin batera salgai. Ondo zainduta eta egoera onean. Tel.: 943 79 94 49. Oskar.

• Idazmakina elektronikoko eraman-garria salgai; kalitate handiko inpri-

matzea. Olivetti PT 505. Tel.: 943 79 99 29. 19:00-21:00.

• Rot Weiler txakurrak salgai. Interesatuok deitu 943 71 48 53 telefonora.

• Bulego altzariak salgai (mahaiak, aulkiak), oso merke. Tel.: 943 79 84 35.

• Egoera onean dauden mahai bat (80 zm. x 1m.) eta lau aulki salgai. Prezio ona. Tel.: 943 79 61 83.

• Ekonomika salgai. Egurra errez ura berotzen du, iturri eta berogailue-takoa. Tel.: 943 76 62 36.

• Akuariuma salga, osagai guztiekin. 150 litrokoa. Tel.: 649 05 32 08.

• Kerosenozko berogailua, usainik botatzen ez duena, salgai. Kero markakoa da eta ia berria dago. Prezio onean. Tel.: 943 79 09 43. Denda orduetan deitu.

27. Erosi

• Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke. Tel.: 943 77 04 98. Irene, egunez.

• Xoxoa disketeak ateratako LPak erosten ditut: Lisiker, Itoiz, Itziar, etab. Tel.: 943 52 65 77.

29. Eman

• 1,35 m. neurriko koltxoia oparitzen da. Tel.: 943 79 48 02.

32. Aurkitu

• Puntuzko txaleko marroi eta grixa aurkitu dut autobus geltokian, Interesatuok jo Abaroara eta Tere Guridiz galdetu.

33. Bestelakoak

• Musika talde batek lokala behar du entsaiatzeko. Tel.: 943 79 81 19.


HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Deba Garaiko grafologo batekin harremanetan jarriko ginatke. Tel.: 943 71 25 11.

• Gasteizera arratsaldeko 16:00ak aldera egunero autoz baldin bazoaz, gastuak banatuko nituzke. Tel.: 943 79 58 88. Maite, gaez deitu.

• Bartzelonako telekomunikazio enpresa garrantzitsuak inbertsorea behar du (10 milioitik gora) Tel.: 943 22 51 61. Iñaki.



weru

weru

Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...



Hona hemen Mondragoeko betiko lagun bi, 1934. urtean elkar ezagutu zuten Asturiasko Iraultzan eta ordutik gaur arte batera dabilta. "Beti elkarrekin eta beti alegre", berriemalaka esan digun moduan. Adiskidetasun horren ondorioz, bi emakume hauen seme-alabak ere elkarren lagunak dira, familia handi bat osatuko balute bezala.

Bikoteko ezkerreko neska Juli Berezibar Arabaolaza "Salturri" baserrikoa da eta eskumakoa Beatriz Garai Etxaurre.

Argazki hau 1937. urtean atera zieten Esteban Garibairen etxearen aurrealdean. Atzean ikusten dena, berriz, Zeziaganeko lehio zabala da.

Euren adiskidetasun luze eta sakonaren erakusgarri izan dadin bidali dute argazki hau.

*Argazkia eta
berriemalaka: J. Bera.*

TAKOLO AUTOAK

Araba etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

Opel Astra diesel berria
2.0 DTI 16V. 100 zaldi



OPEL 

FANTASIA ETA BELDURREZKO ZINE MARATOIA

EGITARAUA
FILM LABURRAK:



The raven (1999) Tinieblas González.



Abuelitos (1999) Francisco Plaza.



Viet-fiam (1998) Manuel Romo.

FILM LUZEAK:



The stormriders (1998) Andrew Lau.




El hombre elefante (1980) David Lynch.



Angel of the night (1998) Shaky González.

azaroaren 21ean (igandea) • Amaia antzokian 17:00etatik aurrera



gm!
gaztemaniak!



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua



ARRASATEKO UDALA



*Jangela, egongela, edo zuentzako nahiz
umeentzako logela bat behar baduzu, zatorz
Arrasateko TodoMueble Kabiara. Nahi
dituzun altzariak, aurkituko dituzu
ordaintzeko modurik onenean :*

*24 hilabeteko epea, interesik gabe eta 2000.
urteko martxoan ordaintzen hasteko aukera
eskaintzen dizugu.*

**Gaur erosi eta
2000. urteko
martxoan hasi
ordaintzen!**

TODO
Mueble
DALIA OJIA **Kabiá**

Gipuzkoa Etorbidea, 28
Tel. 943 79 27 70 • ARRASATE

Ordutegia: 10:15 - 13:30 eta 16:00 - 20:00. Larunbatak barne